

Tanzaniako Tribuak (I)

Manu Ormazabal

manuorm@yahoo.es

Abstract

There are 127 tribes in Tanzania. This article provides data about 31 of these tribes, their geographical distribution, their demography and languages.

Laburpena

Tanzanian 127 tribu dira; horietako 31ren barri ematen da eta euren banaketa geografikoa, demografia, kultura eta hizkuntzei buruzko datuak aurkitu daitezke artikulu honetan.

Keywords: Tanzania, tribe, language

Gako hitzak: Tanzania, tribu, hizkuntza.

1. Sarrera: Tanzania

TANZANIA (Jamhuri ya Muungano wa Tanzania) Afrika Ekialdeko estatua da.

Mugak: iparraldean, Uganda eta Kenya; ekialdean, Indiako ozeanoa; hegoaldean, Mozambique, Malawi eta Zambia; mendebaldean, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Burundi eta Rwanda. Herrialdearen izena “Tanganyika” eta “Zanzibar” hitzak batzetik dator.

945.203 kilometro karratuko azalera du eta, 2012ko erroldaren arabera, 44.928.923 biztanle.

Hiriburua Dodoma da 1974az geroztik, baina Dar es Salaam da hiri nagusia 4.364.541 biztanlerekin. Garrantzizko beste hiri batzuk: Mwanza, Mbeya, Arusha, Tabora eta Tanga.

1.1. Hizkuntzak

Tanzanian 127 hizkuntza daude. Biztanleen % 90ek bantu hizkuntza bat erabiltzen du. Hizkuntza nilotarrak eta Cushit hizkuntzak ere hitz egiten dira eta, batez ere Zanzibarren, arabiera. De iure ez dago hizkuntza ofizialik, baina swahilia da hizkuntza nazionala. Hizkuntza frankoa eta administrazioarena izanik, de facto hizkuntza ofiziala dela esan daiteke. Ingelesen kolonizazioaren garaian ingelesa zen administrazioaren hizkuntza. Gaur egun, ordea, swahilia da parlamentuaren eta gobernuaren mintzaira. Lehen hezkuntzako hizkuntza ofiziala swahilia da; bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ingelesa izan da oraintsu arte. 2015eko otsailaren 14an Sifuni Mchome Hezkuntzako Ministroak iragarri zuen aurrerantzean swahilia izango zela hezkuntzako maila guztietako hizkuntza ofiziala.

1.2. Demografia

Tanzaniako tribuen zerrendan arazoak daude izen batzuekin. Izan ere, Ethnologue web orriko Tanzaniako hizkuntzen zerrendatik hartua da eta gerta daiteke tribuen izen batzuk hizkuntzaren edo dialektoaren izena izatea, tribuarena barik edota izen batzuk txarto idatzita egotea, zenbait kasutan ez baitago argi talde batzuk tribu diren ala ez, tribuen arteko nahastetik sortutako komunitateak ere badira eta. Talde batzuek ehunka gutxi biztanle baino ez dituzte; beste batzuek, ordea, milioitik gora. Batzuei buruzko informazioa eta egindako azterlanak ugariak eta aberatsak dira, beste batzuk, ostera, atzenduta geratu dira eta euren gaineko argibide gutxi dago. Hauek dira, beraz, Tanzaniako tribuak.

2. Tribuak

2.1. Alagwa edo Chasi

Alagwa edo Chasi Tanzania erdialdeko Dodoma eskualdeko Kondoa barrutiko 15 herrixketan bizi den talde etnikoa da.




1. Irudia: Alagwa tribuaren kokagunea

2001ean 30.000 kide zituen tribu honek. Nekazariak dira. Artoa eta artatxikia lantzen dituzte gehienbat. Auzo-lanean aritzen dira lursailak lantzeko, abereak gobernatzeko eta errepedeak, etxeak eta putzuak egiteko. Bubu ibaiak beheko lurra zeharkatzen dituen arren, goiko lurraldeetan ur-eskasia jasaten dute, urteko prezipitazioa 500-800 milimetrokoa baino ez da eta.

Buztin egosizko adreiluekin egiten dituzte etxeak, belarrezko sabaiekin. Etxeak belarrezko, kanaberazko edo egurrezko hesi handi eta sendoekin inguratzen dituzte. Hesien barrualdea eta inguruak garbi-garbi edukitzen dituzte, etxeak ondo jagoteko.

Alagwa edo chasi da euren jatorrizko hizkuntza ere. Afroasiar familiako Hegoaldeko Cushit adarreko mintzaira da. Hala ere, hiztun batzuek inguruko tribuaren Sandawe hizkuntza hartu dute, jatorrizkoa baztertua edo gutxietsita. Ethnologueko datuen arabera, hizkuntza mehatxatua da; herri batzuetan indartsu dagoen arren, herri mistoetan euren artean rangi eta swahili hizkuntzak erabiltzera jotzen dute umek. Beste herri batzuetan, hezkuntza islamikoa dutenez (alagwen % 90 islamiarrak dira), umeak hobeto moldatzen dira arabieraz eta swahiliz, alagwaz baino.

Alagwa hizkuntzaren beste izen batzuk: Alagwaisa, Alagwase, Alawa, Asi, Chasi, Hhagiree, Kialagwa, Kichase, Uassi, Waasi, Wasi.



2. Irudia: Alagwa tribuko kideak

2.2. Akiek

Tanzaniako iparraldeko Arusha eskualdean eta Kenyako hegoaldean bizi den talde etnikoa da.

Ogiek edo Okiek tribuaren azpitaldea da. Beste tribu batzuetakoekin nahastu ondoren harremanak galdu zituzten Okiek tribuaren gune nagusiarekin. Batzuetan Okiek eta Akiek izenak tribu berbera izendatzeko erabili ohi da, baina jatorrizko tribua Ogiek edo Okiek da eta Akiek, berriz, azpitaldea edo azpitribua.

Akiek tribuak 3.700 biztanle inguru ditu.



3. Irudia: Okiek tribukoak

Akiek hizkuntza galzorian dago (500 bat hiztun). Tanzaniako Akiekek Maa hizkuntza (Masaiena) hitz egiten dute eta Kenyakoek Kikuyua.

2.3. Arusha

Tanzaniako Arusha eskualdeko Meru mendia inguruan bizi den tribua da. Kolonoak iritsi aurretik, gaur egun Arusha hiria dagoen aldeko biztanleak ziren. 226.000 kide ditu tribu honek.

Teoria bi daude talde etniko honen jatorriaz. Batzuen iritziz, masaien arteko gerlaren ostean, galtzaileak lurralde horretara heldu ziren babes bila nekazarien artean. Denborarekin nekazari bilakatu ziren eurak ere, gainerako masaiengandik bereizita.

Beste batzuen ustez, oster, masaien arteko bakea egitera Meru mendira joandako Pare tribuaren ondorengoak dira. Orduan hasi omen ziren masaien hizkuntza erabiltzen.

1892ko behi-izurriaren ondorioz, masaiak ganadurik gabe geratzean, arushekin batu ziren, masaien kultur eragina areagotuz eta indartuz arushen artean.



4. Irudia: Arusha tribuko dantzariak 1936an

Meru mendian, arushen auzoko tribua Meru tribua zen. Tribu honetakoak lehenak izan zirenez mendi hartara iristen, goiko lurretan finkatu ziren. Arusha tribukoak, berriz, beheagoko lurretan. Hasieran, tribu bi horien arteko borroka izan arren, gero elkarrekin lankidetzan aritu ziren. 1881ean Meru tribuko gazteak arushen “talala” (espansionistak) izeneko gazte-taldearekin batu ziren kolono alemaniarrei aurre egiteko.

1880an alemaniarrek Kilimanjaro aldera ailegatzeko hasi ziren. Hamarkada horretan lehorreko eragindako goseteak jasan zituzten arushak 1883tik 1886ra. 1892an, berriz, behi-izurriak erdi zapuztuta utzi zuen tribu hau.

Alemaniarrek pixkanaka sartu ziren Meru mendian. 1881ean izan zuten aurreneko borroka arushak eta Herman von Wissmann ofizialaren agindupean eta Moshiko chaggekin batera ziharduena alemaniar talde txiki batek Kibosho lurraldean. 1885ean Moshin zeuden alemaniarrek eraso zieten arushei Kurt Johannes administratzaile kolonialaren agindupean. 1896an gazte arushak bi misiolari alemaniar hil zituzten Johanessen aurkako eraso batean. Johaness kapitana bere soldaduekin eta chagga tribuko talde handi batekin itzuli eta suntsitu egin zuen meru eta arushen nazioa bi aldiz, 1896an eta 1897an.



5. Irudia: Meru mendia

Arusha eta Meru herrietan liskarrak amaitu eta alde hori baketu ostean, alemaniarrek konfiskatu egin zituzten lurrik emankorrenak eta familia alemaniarren kopuru jakin baten eta Hegoafrikako 100 familia afrikanerren artean banatu. Lehenengo Mundu Gerran britainiarrek heldu ziren Arushara 1916an. 1917an konfiskatu egin zituzten alemaniarrek hartuak zituzten arushen lurrak eta kolono greziar eta britainiarren artean banatu. Britaniarren kontrolpeko Tanganyikan Arushen Komunitatearen Batasuna eratu eta Simeon Laiseri hautatu zuten buruzagi berri 1948ko urtarrilaren 14an.

Tribu honen hizkuntzak ere arusha du izena. Masaien hizkuntzaren dialektoa da. % 35 kristauak dira eta gainerakoek erlijio etnikoak dituzte.

2.4. Assa

Tanzaniako Manyara eskualdeko Masaien estepan bizi den talde etnikoa da. 300 kide ziren 1999an, ekialdeko assak masaiek asimilatu ondoren.



6. Irudia: Manyara eskualdea

Assa herriaren jatorrizko hizkuntza Aasax da. XX. mendearen erdialdean galdu zen Maa hizkuntzak xurgatuta. 100 bat lagun geratzen dira zertxobait dakitenak oraindik; hala ere, datu hori ez dago egiaztatuta. Arbasoei entzundako hitz batzuk dakizkitez, baina ez dituzte erabiltzen. Informazio gutxi dago hizkuntza honi buruz. Afroasiar familiako hegoaldeko Cushit adarrekoa omen da, oso lotua Kw'adza hizkuntzarekin.

Ethnologueren arabera beste izen hauek ere baditu assa hizkuntzak: Aasá, Aramanik, Asá, Asak, Asax, Assa, “Dorobo” (pej.), Il Konono, Lamanik, “Ndorobo” (pej.).

2.5. Barabaig (Barabaik, Mangati, Tatog, Datog)

Datooga herriaren zazpi tribuetako (Bajuta, Gisamjanga, Barabaig, Tsimajeega, Rootigaanga, Buraadiiga eta Bianjiida) bat da, Tanzaniako Manyara eskualdeko goi lurretan, Hanang mendiaren inguruan, eta Singida eskualdean finkatutakoa. 50.000 kide ditu tribu honek.

Barabaig asko Bassotu barrutitik bota zituzten 90.eko hamarkadan, Kanadako eta Tanzaniako gobernuek garia eskala handian lantzeko proiektu baterako lurak behar zituztelako.

Gaur egun ere, barabaigen lur asko gobernuaren esku daude, prest kanpoko inbertitzaileei saltzeko.

Ehiza, nekazaritza eta animalien hazkuntza dira tribu honen bizibideak. Elefanteak, lehoiak edo bestelako animalia handiak lantza hutsez ehizatzea zen euren ohituretako bat. Hori lortzen zuena heroitzat hartzen zuten eta ganadua eta emakumeak oparitzen zizkioten, ospe handia lortzen baitzuen tribuan.



7. Irudia: Barabaig emakumea

Datooga (Datog, Datoga, “Mangati” (pej.), Tatog, Tatoga, Taturu) da Barabaig tribuaren hizkuntza; nilotarra da. Guztira, (beste sei tribuekin batera) 88.000 hitzun ditu. Ingelesez batzuetan Sukuma Taturu izena ere erabiltzen da hizkuntza hau izendatzeko. Swahiliz,

berriz, Mang'ati deitzen zaio; hitz hori Maa hizkuntzatik dator eta “etsaia” esan gura du. Edozelan ere, ez dute iraintzat hartzen eurentzat harro sentitzeko arrazoia baita masaieen arerio historikoa izatea.

Emakumezkoei ablazioa egiten diete isilpean edo ezkutuan.

Gutxi alfabetatutako herria da. Euren hizkuntzan alfabetaturik ez dago. Swahiliz % 1 baino ez dago alfabetatuta.

Ethnologueren arabera, Datooga hizkuntza garatze-bidean dago. Erabilera aldetik egoera indartsuan biztanleen adin-tarte guztietan.

2.6. Bembe

Afrikako Aintzira Handietako herrialde guztietan bizi den tribua da, Tanganyika aintziraren iparraldean Kongoko Errepublika Demokratikoko Fizi lurraldean, Tanzaniako Kigoma eskualdean eta Burundiko Bujunbura hirian. Kongoko Errepublika Demokratikoaren barruko estatu bezala identifikatzen dira. Hala ere, Bembeen aurreneko estatua Kristo aurretiko 500. urtean sortu zen, Éssé edo Ébalo `ya Bembe izenarekin. 1926ko apirilaren 15ean legez sortu zen Bemben lurraldea eta 1937an bost sektoretan zatitu: N'Gangya, M'tambala, Tangani'a, Lulenge eta Itombwe. Azken hau Mwenga lurraldera lotu zuten 1947an.

Tribu honek 252.000 biztanle ditu Kongoko Errepublika Demokratikoan, 360.000 Tanzanian eta 50.000 Kongoko Errepublikan (Kongo-Brazzaville).

Ezkontzen bidezko klanetan zeukaten antolatuta euren gizartea. Famili unitatea hiru belaunaldik osatua da jeneralean. Herrixkako burua, nga-bula, arbasoekiko bitartekaria zen.

Ehiza zen euren jarduera nagusia. Nzambi zen euren Jainko sortzailea. Bizitzaren eta heriotzaren maisua zen.

Kitebi edo Bimbi izeneko figuratxoak egin ohi zituzten, arbasoen irudi idealizatu moduan edota ehiza erakartzeko.



8. Irudia: Bembeen figuratxoa, Brooklyn Museokoa

Zeharo bestelakoak dira gizonezkoen eta emakumezkoen eskubideak eta betebeharrak;

gizonezkoak dira erabakiak hartzen dituztenak komunitateko gaitan zein politikan eta ekonomian. Emakumeak etxeaz, ganaduaz eta familiaz arduratzen dira, hau da, seme-alabak hazteaz eta senarra pozik edukitzeaz.



9. Irudia: Bembe tribuko gaztea danborra jotzen

Ezagunak dira euren musikagatik. “Gerra-danborrak” da euren ezizena.

Tribu honen jatorrizko hizkuntzak ere Bembe (Beembe, Ebembe, Ibembe) du izena. Niger-Kongo familiako bantu hizkuntza da. Kongoko Errepublika Demokratikoan 252.000 hiztun dituen arren (1991eko datuak), Tanzanian ia erabat galdua dago; 30 urtetik beherako gazteak ez dira gai euren ama-hizkuntzan berba egiteko; swahilia hartu dute ama-hizkuntzat.

2.7. Bena

Tanzaniako Iringa eskualdeko Njombe barrutian bizi da 670.000 kidek (2001) osatzen duten bantu tribu hau. Euren bizileku nagusia Iringa bada ere, inguruko barrutietan ere aurki daitezke, Morogoro eskualdeko Ulanga barrutian esaterako. Beste tribu batzuek bezala, ohituren eta usantzen aparteko baliabide naturalak jarauntsi dituzte, baita kobazuloak eta oihanak ere, batez ere Nyumbanitu oihana eta hango leizeak.



10. Irudia: Bena tribuaren herrixka

Nyumbanitu oihan tradizionala Mleleve izeneko herrixkan dago, Mdandu konderrian, Njombe hiriaren ipar-mendebaldean, 15 kilometrora, Mebya hirira zihoan errepide zaharretik abiatuta. Paul Msemwa doktorearen ikerketen arabera, uste da oihan horretako aurreneko biztanleak Rufiji ibaiaren inguruko benatarrak izan zirela. Historiak dio, gerora, beste tribu batzuk ere, bakoitza bere garaian, bizi izan direla Nyumbanitu oihanean, hala nola, Hehe, Nyakyusa eta Kinga taldeak. 1,5 hektarea ditu eta bertan aurkitu izan diren zeramikazko piezek dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, badirudi 15. mendeak direla.

Msemwaren esanetan, pieza horiek Tanzaniako itsasalde osoan aurkitutako 1300-1500era bitarteko piezen antzekoak dira.



11. Irudia: Nyumbanitu oihana, Iringa eskualdean

1940an oihana inguratzen duten lurralde guztiak Mbeyela buruzagiaren gobernupean zeuden. Buruzagi horrek The Tanganyika Wattle Company (TANWAT) konpainiari saldu zizkion lurrok, oihanean ez sartzeko baldintzarekin. Hala ere, konpainia horrek oihaneko zuhaitzak mozteari ekin zion.

Kontatzen dute zuhaitzak moztu ondoren, biharamun goizean berriro han zeudela zutik zuhaitzak, inork moztu ez balitu legez. Gertakari harrigarri horren ostean, TANWATEk lurralde horretatik alde egitea erabaki e zuen. Oihana biziberritu egin zen 1600etik 1950era bitartean Mbena, Tevele, Mkilaugi, Mponda, Malova, Ngiliviga eta Chalula klanek erabilita.

Msemwak dioenez, garrantzi handiko oihana da Afrikako ohiturak eta kultura aztertzeko, batez ere Bena tribuarena. Zer ikertu franko dagoela bertan.

Ekonomiari dagokionez, talde etniko hau nekazaritzatik bizi da. Garia, artoa eta patatak dira gehien lantzen dituzten produktuak. Batez beste talde aberats samarra dela esan daiteke, Tanzaniako gainerako tribuekin alderatuta. Eskola bikainen jabe dira.

Bena (Ekibena, Ikibena, Kibena) 670.000 hiztun dituen Niger-Kongo familiako bantu hizkuntza da. Adin-tarte guztietakoek erabiltzen dute eta Ethnologuaren arabera goraka doa Bena hizkuntza.

Kilemile hizkuntzalariaren arabera, Bena hizkuntza sano aberatsa da lexikoaren aldetik. 100 hitz omen ditu "jo" hitza adierazteko. Bost dialektotan banatua dago: Kilavwugi (Ilembula aldean), Sovi (Lusisi-tik Makambako-ra), Maswamu (Imaliny, Njombe hirian eta Mdandu konderriko parte batean), Lupembe (Lupembe konderrian) eta Mavemba (Uwemba eta Igominyi konderriko parte batean).

Dialektoen arteko aldea txikia da, batez ere ahoskera mailakoa.

% 96 kristauak dira.

2.8. Bende

Tanzaniako Rukwa eskualdeko Mpanda barrutian aurki daiteke 27.000 kide dituen talde etniko hau.

Idatzizko oso datu gutxi daude euren buruz. Uste da tribu honen historia euren auzoko tribuarekin (Fipa) lotua dagoela.



12. Irudia: Mpanda barrutia da tribu honen kokaleku

Badirudi jatorriz Kigoma eskualdekoak direla, Ha eniako ehiztariak. Gaur egungo Mwese eta Katuma herrien artean zegoen Ushambo herrialdera lehenengoz iritsi zirenean klan hauek osatzen zuten tribua:

Tinta: Mbaya eskualdeko Ibungu-koak.

Tahya: Kongoko Errepublika Demokratikotik iritsitako bendetarrak.

Jombe: Burunditik heldutakoak.

Ng'ondo eta Twambo: talde bi hauek Kigomakoak.

Ikusten denez, ez da bizitzeko lurralde finkoa izan duen tribua. Sarritan leku batean finkatuta zeudenean klaneko norbait hiltzean alde egiten zuten handik, lurra madarikazioa zuelakoan.

Ehiztari eta ezti-egilez gain, nekazariak ere badira. Artoa, indabak, patatak eta artaxikia lantzen dituzte gehienbat, baita intxaurrak ere. 1920an hasi ziren "mzungu" (gizaki zuria) batek eroandako manioka lantzen.

Talde txikietan bizi ziren bendetarrak euren buruzagiak (mtemi) zituzten. Mtemi horren gobernua konderri hauetara zabaldu zen: Kabungu, Katuma, Mishamo eta Kalya.

Hauek izan dira bendetarren historiako mtemi edo buruzagirik garrantzitsuenak: Mtemi Mkanya, Mtemi Sipwela, Mtemi Lutangashanaye, Mtemi Mohamed Kalufya-Mishamo, Mtemi Malimungu-Butwamboe, Mtemi Kandegge-Usenga, Mtemi Nsokolo-Ugala, Mtemi Lukandamila, Mtemi Katambilila, Mtemi Lukandamila, Mtemi Pandashalo eta Mtemi Kabunda.

Mutilak ezkontzeko adinera heltzen direnean gurasoek aurkitzen diote andregai eta eurak jartzen dira harremanetan neskaren gurasoekin. Behiak eta gazta izaten da mutilak jarri beharreko dotea; ezin badu doterik jarri, neskaren gurasoentzat egin behar du lan, harik eta eurek (neskaren gurasoek) ezkon daitezkeela erabaki arte. Mtemi edo buruzagia nahi hainbat emakumerekin ezkon daiteke.

Katabi eta Wamwelu dira tribu honetako izpirituak. Senar-emazteak dira eta garrantzi handia dute bendetarren bizimodu osoan: ehizara joateko, ezkontzeko eta abarrerako sakrifizioak eskaintzen zizkieten.

Tribu honen hizkuntzak ere Bende (Kibende, Si'bende) du izena Niger-Kongo familiako bantu taldekoa). 27.000 hiztun zituen 1991n; gaur egun, estimazio batzuen arabera, 42.000 ditu. Adin-tarte guztietakoek erabiltzen dute. Batzuek zailtasunak dituzte swahiliz moldatzeko.

Gaur egun, % 95 kristauak dira; gainerakoak erlijio etnikodunak.

2.9. Bondei

Tanzaniako ipar-ekialdean bizi da tribu hau, Tanga eskualdean, Usambara mendietan, Tangako barrualdean. 80.000-100.000 lagunek osatzen dute talde etniko hau.



13. Irudia: tribu honen kokalekua

Tanzaniako tribu gehienek bezala bantu taldeko hizkuntza egiten dute bondeiek. Bantu herriek Indiako Ozeanoko kostaldera iritsi ziren Jesukristoren garaian edo pixka bat lehenago.

Kostalde horretako beste talde batzuen ahozko tradizioaren arabera, Bondei tribua 200. urtearen inguruan iritsi zen. Usambara mendiaren inguruko beste tribu batzuk hauek dira: Sambia, Zigua, Kilindi eta Digo. Tribu horien batasunari Seuta deitzen zaio. Izatez Bondei hizkuntzako berba bi dira, Se (aita) eta Kuta (arkua); "arkua duen aita". Batasun hori portugaldarren inbasioei aurre egiteko sortu zen.

Bondeiak, batez ere, Muheza barrutian eta Pangani hiriko parte batean daude. Muheza barrutiko biztanleen % 16,5 eta Tanga barrutikoen % 10,7 dira.

Bondeiak, Digoak bezala, abelazkuntzatik eta arrantzatik bizi dira. Garai batean herri gerlaria zen. Euren lurraldean sartu zen Kilindi herriari eraso zion 1860an, Kilinditarren hegemoniari aurre eginez.

Bondeien % 32 kristauak dira eta % 65 musulmanak.

Bondei hizkuntza (Bonde, Boondei, Kibondei) Niger-Kongo familiako bantu taldekoa da. 50.000 hitzuntzitan 2000n. Hizkuntza mehatxatuen artean dago sailkatuta Ethnologuen. Swahilira aldatzen ari dira.

2.10. Bungu

Tanzaniako hego-mendebaldeko Mbeya eskualdeko Chunya barrutian bizi da talde etniko hau, Rukwa aintziraren inguruko zelaietan eta mendixketan. 36.000 kidek osatzen dute tribua.



14. Irudia: Bunguen txalupa Rukwa aintziran

Bunguen etxeak lurrez egindakoak dira eta teilatuak lastoz estaltzen dituzte. Arrantzatik bizi dira gehienbat baina behiak, txerriak, ahuntzak eta oilaskoak ere hazten dituzte. Nekazaritza mailan salmentarako kotoia lantzen dute lautadetan eta tabakoa mendialdean. Elikadurarako, berriz, artoa, artatxikia eta juka. Artatxikia garagardoa egiteko ere erabiltzen dute.

Ez da tribu aberatsa. Eskolagabeak dira gehienak. Lehen hezkuntza amaitutakoan, gazte asko arrantzaren negozioan sartzen dira, arrantza eta nekazaritza baitituzte bizibide. Ospitale katoliko bat, bigarren mailako eskola bat eta gasolindegia bat dituzte euren lurraldeko herririk handienean. Beste talde linguistiko batzuetako jendea erakarri duten urrezko meategiak daude lurralde horretan.

Kristautasunak indar handia du Bunguen artean (% 80) baina, hala ere, ez dute tradiziozko erlijioa galdu erabat.

Jainko sortzailearengan sinesten dute eta sakrifizioak eskaintzen dizkiote Kwimba mendian. Ia Bungu guztiek diote katolikoak direla nahiz eta erlijio etnikoa praktikatzen jarraitu.

Tribuko buruzagi batek honela azaldu zuen erlijioa: "...antzekoak dira gure erlijio tradizionala eta katolikoa. Bunguek arbasoei egiten diegu otoitz eta katolikoek santuei. Hirutasuna ere badugu: Jainko sortzailea, semea eta Jainkoaren indarra. Alde bakarra, semea ez zela lurrera jaitsi. Zigorrek aztiak jartzen ditu.

Bungu (Wungu, Echiungu, Kibungu) hizkuntza Niger-Kongo familiako bantu adarrekoa da. Hizkuntzaren Ebaluazio Taldeak 1997an egindako inkestaren arabera 36.000 hitzuntzitan dago. Hizkuntza indartsu dago eta gizarteko arlo guztietan erabili ohi da. Gehienek swahilia ere badakite, baina ez kontzeptu korapilatsuak ulertzeko adina.

2.11. Burunge

Tanzaniako Dodoma eskualdeko Kondoa barrutiko Cushit familiako tribua da. 2007an 30.000 lagun ziren.



15. Irudia: Burunge tribuko kideak

Iraupeneko nekazaritzatik bizi dira. Artoa, artatxikia eta indabak dira gehien lantzen dituzten produktuak.

Talde etniko txiki honi “hegoaldeko Cushitak” deitzen diote. Uste da Etiopiako goi-lautadatik iritsi zirela Tanzaniara lehenengo Burungeak. Tribu honen aurreneko aztarnak goi-paleolitikokoak dira. Tanzaniako iparraldeko Cushiten eta Etiopiako hegoaldeko Cushiten hizkuntzen arteko diferentziei erreparatuta, badirudi mendeetako isolamenduaren ondorio direla.

Hauek dira euren kulturaren ezaugarri batzuk:

1. Emakumeen genitalen mutilazioa praktikatzen dute gaur egun ere, nahiz eta Tanzanian debekatuta egon.
2. Oinordekoa alarguna izaten da
3. Gizonezkoen zirkuntzisia egiten diete eta herritik kanpo (mendian, basamortuan...) egon ohi dira sei hilabetez.
4. Ezkontzeko orduan emakumeek ez dute hitzik; izan ere, ezagutzen ez duten norbaitekin edota sekula ikusi ez duten norbaitekin ezkonarazi ditzakete gurasoek.
5. Burungeentzat emakumea erdipurdizko izakia da eta ez du hitzik gizonaren aurrean.
6. Hezkuntzaren gaia pozoia da tribu honentzat. Umeak eskolara bidaltzea denbora galtzea da eta eskolara doazenak zigortu egiten dituzte. Egoera hau aldatzen ari da gobernuak eskola gehiago jarri eta umeak eskolara bidaltzera behartzen dituenetik, gurasoen gustukoa ez bada ere.
7. Egurrez eta buztinez egiten dituzte etxeak.

Erlijioari dagokionez, erlijio tradizionala, musulmana eta kristaua dira nagusi.

Hizkuntzaren izena ere Burunge (Bulunge, Burunga Iso, Burungi, Kiburunge, Mbulungi, Mbulungwe) da, Cushit familiakoa. Egoera indartsuan Ethnologuen

arabera. Adin-tarte guztietakoek hitz egiten dute. Rangia eta swahilia ere erabiltzen diuzte.

2.12. Chaga

Bantu tribu hau Tanzaniako iparraldeko Kilimanjaro eskualdean eta Moshi hiriaren inguruan bizi da. 2.000.000 biztanlek osatzen dute talde etniko hau. Patatak, bananak eta artatxikia lantzen dituzte gehienbat. Kafearen produkzioa kolonoek sartu zuten 19. mendean eta horrekin jarraitzen dute gaur egun ere merkataritzamailan. Behiak, arkumeak eta ardiak ere hazten dituzte, okela eta esnea eta euren ortuetarako ongarria lortzeko. Haragia edukitzeko ere bai; izan ere, errituaitako sakrifizioak egiteko debekatua baitzuten erositako edo beste etxe batean hazitako animaliak hiltzea.

Tribu honen jatorrizko lurak txikiak zirenez, sakabanatu egin ziren Tanzania barruan eta kanpoan, pobrezia aurre egin ahal izateko.

Aspaldiko ipuin batzuetan agertzen denez, Chagak Kilimanjaro mendira Jainkoagandik hurbilago egoteko joan ziren. Alabaina, egindako ikerketek erakusten dute Chagak nomadak zirela eta Kristo aurretiko 600. urtean ailegatu zirela Kilimanjaro eskualdera.

Antzinako historiak dio Kilimanjaro mendira gerratik edo gosetetik iheska iritsitako beste tribu batzuen nahastea direla Chagak.

Badira paraje horretara hango luraren aberastasunak eta klimak erakarrita joan zirenak. Batzuk han geratu eta hango tribuetakoekin nahasi ondoren sortu zela Chaga tribua.

Chagen gobernuak “Mangi” edo buruzagiak gidatzen zuen. Lurralde bakoitzak bere mangia zuen. Ezagunak ziren Mangi Sina (Kibosho lurraldean), Mangi Rindi (Moshi hirian) eta Mangi Marealle (Marangu hirian).

1750etik 1890era bitartean euren arteko gerra izan zuten, mangi bakoitzak beste mangien lurraldeak bereganatu gura zituelako.

XIX. mendera arte 30 taldetan zeuden banatuta Chagak, talde bakoitzak bere mangia zuela buruzagi. Bakoitzak bere hizkuntza edo dialektoa zeukan.



16. Irudia: Chagen etxea

Euren bandera zeukaten eta jaieguna ere bai, “Chagen eguna”. Egun hori chagak batzeko, jateko eta ospatzeko eta elkartasuna sendotzeko baliatzen zuten. Chagen arteko gerra areagotu egin zen misiolariak Kilimanjarora heldu eta kristautasuna zabaldu eta kafearen produkzioa sartu zutenean. Buruzagiek armak utzi eta kafegintzari ekin zioten. Chagak hainbat taldetan banatuta egotea mesedegarri gertatu zitzairen kolonei, buruzagiak (mangiak) engainatzeko, lur gehiago eta baliabide gehiago aginduta. Hartara, buruzagi guztiak saiatu ziren kolonoen laguntza eskuratzen, ekonomia eta politika arloan indartzeko.

Stanl Kathleem historialariak 1962an idatzitakoaren arabera, tribu honek hainbat buruzagi izan zituen, baina gutxi lortu zuten ospea politika egiteko moduagatik.

1800ean Kilimanjaro mendiaren ekialdeko Mangi Horombo izan zen buruzagirik indartsuena eta bere taldeak hartu zituen talde ahulagoen lurak eta aberastasunak.

Hala ere, Horomboren heriotzaren ostean, bere erresuma talde txikitik sakabanatu zen. 1848an estreinako britainiarra, Johannes Rebmann, Kilimanjarora iritsi zenean, Machame eta Kilemako mangiek zuten indar ekonomiko eta politikorik handiena, baina gainbehera hasita zenbait arrazoiengatik.

Mangi Oromba izan zen chagen inperioa eratzen ahalegindu zen lehendabiziko buruzagia. Ondorengoak, Mangi Sina izenekoak, Orombak urratutako bideari jarraitu zion. 1870ean Kibosho afrikarren eta arabiarren arteko merkataritzarako hiri bihurtu zuen. Afrikarrek elefanteen letaginak ematen zizkieten arabiarrei, armen eta munizioen truke. Buruzagi honen gobernuak 1891ra arte iraun zuen, ingelesak Moshi hiriko Mangi Rindiri laguntza ematen hasi zirenean, hain zuzen. Buruzagi honen helburua Kilimanjaro eskualde osoa mende hartzea zen. Horretarako, Meru mendiko Arusha eta itsasaldeko Swahili tribuekin batu zen; azkenean, ituna sinatu alemaniarrekin, Afrika Ekialdeko gobernu alemaniarren menpe jartzeko Kilimanjaro eskualdea.

Alemaniarrekin zituen harremanen ondorioz, Moshi bilakatu zen Kilimanjaro eskualdeko hiriburua.

Marunguko Mangi Marealle 1880an hartu zuen chaga tribuaren gobernuaren ardura. Ez zen gerrazalea eta ingelesez eta arabieraz ikasi zuen zuzeneko harremanak izateko haiekin eta Marangun inbertitzera bultzatzeko. Alemaniako gobernuko buruzagiekin ere adiskidantzazko harremanak estutzeko asmoa izan zuen. Uste da 1890ean Alemaniako armadako buruzagi bati sinestarazi ziola Kibosho eta Moshiko chagak konplota prestatzen ari zirela alemaniarren Afrika Ekialdeko gobernu suntsitzeko. Ondorioz, alemaniarrek urkatu egin zituzten Kibosho eta Moshiko buruzagiak.

Garrantziko beste buruzagi bat Mangi Abdiel Shangali (1923-1946) zan zen.

Tanzaniak independentzia lortu ondoren, Julius Nyerere presidentek chagen arazoa konpondu zuen Tanzaniako beste alde batzuetako lurak eskainita, denak Kilimanjaro mendiaren hegalean bildu beharrean.

Egoera horretan, chagek hezkuntzan inbertitzea erabaki zuten, euren seme-alabek bizimodua beste lurralde batzuetan aurrera atera ahal zezaten.

Gaur egun, Tanzania osoan sakabanatuta bizi dira eta beste tribu batzuekin aritzen dira lanean, euren kultura galdu barik. Gabon-jaietan edo gutxienez urtean behin denak batzeko ohitura dute.



17. Irudia: Chagak batzen diren eguneko jai ospatzen

Kultur loturak dituzte Pare, Taveta eta Teita tribuekin. Bantu hizkuntzen taldekoak diren arren, ez dute hizkuntza bakarra erabiltzen elkarrekin lotura duten chaga dialektoak baino, honako hauek: Rombo, Vunjo, Old Moshi, Uru, Kibosho, Machame, Siha eta Ngassa. Guztira, milioi bat hiztun.

Kristautasuna heldu aurretik, euren tradiziozko erlijioa zeukaten. Arbasoen garrantzia handia da gaur egun ere. Euren Jainkoa Kilimanjaro mendiaren tontorrean bizi den Ruwa da. Mendi sakratua da Kilimanjaro chagentzat.

2.13. Dhaiso

5.000 kidek (1999an) osatutako talde etniko hau Tanzaniako Tanga eskualdeko Muheza barrutiko Usambara mendiaren behealdeko herrirka bitan (Mwiti eta Magati) bizi da. Segeju tribuaren ahaideak dira; “islamizatutako Segejuak” esaten diete. Dhaisoen tradizioak auzoko Digo tribuaren eragin handia jaso du.



18. Irudia: tribu honen kokalekua

Nekazariak dira gehienbat eta, itsasaldean, arrantzaleak, kakaoa, juka, kokoa, piperbeltza eta kanela lantzen dituzte. Ez dute arazorik edateko ura lortzeko, hurbil dituztelako Usambara mendiko iturburuak. Bantu tribu guztien antzekoak dira etxeak, egurrez eta buztinez egindakoak alegia. Etxea askotan terrazak egin dituzte itzalpean egoteko eta euritik babesteko. Musulmanen janzkera dute. Gizonezkoek kanzu luzea darabilte eta emakumezkoek kanga. Batzuek mendebaldeko arropak ere erabiltzen dituzte, hau da, blusak eta gonak.

Poligamia Dhaisoen kulturaren parte da. Ezkontzetan eta hiletetan gerra-danborrak jotzen dituzte.


Dhaisoak musulmanak dira gehienak (% 89). Kristauak % 1 eta gainerakoak erlijio tradizionala praktikatzan dute.

Dhaiso (Daiso, Daisu, Kidhaiso, Segeju, Sengeju) hizkuntzak 5.000 hitzun zituen 1999an. Tribu honetako jendea beste tribu batzuetakoekin ezkondu denez, euren hizkuntza ez diete seme-alabei pasatu (lehen mailako irakaskuntzako ume gehienak ez dira gai Dhaisoz hitz egiteko). Swahiliz egiten dute gehienek. Hortaz, Dhaiso hizkuntza gailorian dago UNESCOren arabera.

2.14. Digo

Kenyako Mombasa hiriaren hegoaldeko Tanzaniako Tanga eskualdera arte dago zabalduta bantu tribu hau. Ahozko historiaren eta zenbait idazkiren arabera, tribu honen jatorrizko bizilekua Kenyako Digi eta Kirau lurraldeak dira. Hala ere, uste da lehenago Afrika

Mendebaldeko Mali estatuko Chungwaya aldean bizi zirela. Gaur egun Timbuktu deritzo lurralde horri.



19. Irudia: Tanzaniako Digoen bizilekua berdez.

Kenyako Mombasa hiriaren hegoalderaino iristen dira

Hala bada, Martin Kayamba ikerlariak 1947an Digoen buruz argitaratutako azterlanean dioenez, Digoak Afrika Mendebaldetik Kenyara sartutako Mbokomu tributik datoz. Azterlan horretan oinarrituta, gaur egungo Digoen jatorria Gala eta Segeju tribuen arteko XIX. mendeko gerran dago. Segejuen borroka erdi galdua zutela oharu zirenean, laguntza eskatu zioten Mbokomu tribuari. Jasotako laguntza gorabehera, Gala tribuak irabazi zuen gerra. Ondorioz, Mbokomu tribua bost taldetan zatitu zen: Chonyi, Ribe, Duruma eta Giriama taldeak Kenya aldean eta Digo taldea Kenyako Garisetik Lungalunga-raino eta geroago sartu ziren Tanganyikako Horohoro-tik Tangaraino hedatuz.

Beste bantu tribu batzuk bezala, digoak ere nekazariak dira. Batez ere artoa, arroza, barazkiak eta frutak lantzen dituzte etxerako. Merkataritzarako produktu nagusi moduan anakardoa eta kokoa lantzen dituzte. Behiak, arkumeak eta oiloak ere hazten dituzte.

Tribu honetako emakumeak sano trebeak omen dira eskulanak egiten: zerriak, alfonbrak eta otzarak. Diru-sarrera gehiago eskuratzeko arrantzan ere aritzen dira; txikizkako merkataritzan ere bai.

Digoen buruzagi ezagunenetakoa Bandilo izan zen. Begirune handia zioten iaioa zelako geziak jaurtitzen, sendabelarrak bereizten eta etorkizuna iragartzen. Haren sona beste tribu batzuetara ere iritsi zen. Zerbaiten premia zutenean Bandilorengana jotzen zuten laguntza eske.

Ahozko historiak dio XX. mendean digoek itsasalde osoko beste tribuek ez bezalako ohiturak zituztela bizirik. Euren etxe tradizionalak Msonge du izena. Forma biribilekoa eta handi samarra da, egurrez eta buztinez egina eta belarrez estalia. Etxeak bi gela eta mutilek lo egiteko erabiltzen den egon-gela bat du. Nesken gela sukalde moduan ere erabiltzen da eta etxearan erdi-erdian gurasoen gela dago.



20. Irudia: Digo tribuko dantzariak

Dena den, Digoek aldatu egin dute bizimodua eta orain etxe modernoak egiten dituzte, hiru gela baino gehiago dituztenak.

Badituzte beste tribu batzuek ez bezalako tabuak ere. Esaterako, mutil gazte batek etxea eraikitzea lortzen bada, baina ezkondu baino lehen hiltzen baldin bada, erritual berezia egin behar da, beste gazte batzuei ezbehar bera gerta ez dakien. Lurperatu aurretik bere etxe berrian sartu, otoitz egin eta gero lurperatu egiten dute. Gazte hori bere etxetik urruti hil bada eta urruti lurperatu badute, bere etxea bota eta berria egiten dute. Etxe berria amaitu ondoren, ezkontzen diren gazteen taldea etxe horretara denak batera aldatu eta, horrela, ezbeharretatik babestuta daudela uste dute.

Hala ere, sineskera hori galdu egin zen erlijio islamikoa eta kristaua hedatzean. Sukaldaritzan ere bazituzten tabuak. Janariak maneatzeko orduan gizonezkoek debekatua zuten sukaldean sartzea eta jateko orduan, berriz, emakumeek zeukaten galarazita gizonezkoekin batzea.

Emakumeek sukaldean jaten zuten alabekin eta gizonezkoek egon-gelan semeekin. Gaur egun, aldatuta dago joera hori eta gizonezko asko sukaldaritzan aritzen dira eta denak batera eta gela berean egiten dituzte otorduak.

401.000 kide dira Digo tribua osatzen dutenak. Horietatik 313.000 Kenyako aldean eta gainerakoak Tanzaniakoan. Hizkuntzak ere Digo (Kidigo) du izena, egoera indartsuan eta goraka doana. Adin-tarte guztietakoek erabiltzen dute. Chinduruma erabiltzen dute 2. hizkuntza modua eta swahilia dute 3. hizkuntza.

Erljio islamikoa eta tradizionala dira nagusiak Digoen artean.

2.15. Doe

Tanzaniako itsasaldeko Pwani eskualdeko Bagamoyo barrutian bizi den talde etnikoa da. 24.000 kidek osatzen dute tribu hau.



21. Irudia: Bagamoyo barrutia beltzez

Erljioari dagokionez, % 20 kristauak dira, % 50 musulmanak eta gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzan dute.

Doe (Dohe, Kidoe) izeneko Niger-Kongo familiako bantu hizkuntza hitz egiten dute. 24.000 hiztun zituen 1987an. Hizkuntza mehatxatuen artean dago Ethnologueren arabera.

2.16. Fipa

Tanzaniako Rukwa eskualdeko Sumbawanga eta Nkansi barrutietan bizi den tribua. 1992an 200.000 kide zituen taldeak; 2002an, ostera, 195.000.

Sumbawanga hiria, hasieran Mazwi zena, oso ezaguna da aztikeria eta sorginkeriagatik; izan ere, akelarre esan nahi du. 1803an fundatua da Kafupi I.a zela tribuko buruzagia. Honen buruzagitzak 1885era arte iraun zuen. Egoitza gaur egun Sumbawanga udalerriaren barruan dagoen Kisumba herrian zeukan. Bere emazte Mwene wa Kulosirekin seme bat eta alaba bi (Mwene Ngalu Chisichafipa eta Mwene Mwati) izan zituen. Kafupi I.aren heriotzaren ostean haren seme Mwene Kiatu izenekoak hartu zuen bere gain tribuaren gidaritzak. Semerik ez zuenez eduki, hildakoan, arreba Mwene Ngalu, hautatu zuten buruzagi.



22. Irudia: Mwene Ngalu

Mwene Ngalu zikinkeriaren eta aztikerien etsaia zen. Fipen buruzagi moduan Sumbawangara iritsi zenean, ustez aziak zirenak Lichwe ibaira botarazi zituen, hiria garbitzeko asmoz.

Diotenez, tribuak estimu handian zeukan Mwene Ngalu eta arazorik gabe gobernatu zuen. Zazpi seme-alaba izan zituen eta denak jaio ziren gobernuaren egoitza zen eraikinean. Eraikin hori 1918-1920an egin zuen eliza katolikoko buruzagi alemaniar batek. Etxearen aztarnak Sumbawanga hiriko Sumbawanga Asilia auzoan ikus daitezke oraindik.

Mwene Ngalu 1989an hil zenean, haren semerik gazteenak (Antony wa Ngao) hartu zuen tribuaren buruzagitza Kafupi III.a izenarekin.



23. Irudia: Antony wa Ngao, Kafupi III.a

Fipen ohiturei jarraituz, buruzagiaren karguaren oinordekoa aukeratzeko Sumbawanga Asilia eta inguruko herrixketako “adineko gizonak” biltzen ziren buruzagirako aurkeztutako izenen artean eztabaidatu eta merezimendurik gehien zuena izendatzeko.

Jaigunea prestatu eta han sartzen zuten buruzagigaia atzetik hiru tronpeta-jotzaile zituela. Tronpeta tradizionalok jotzeko orduan, lehenak huts egiten bazuen, bigarrena jotzen zuten. Bigarrenak ere jotzen ez bazuen, hirugarrenarekin saiatzen ziren. Hirugarrenak ere kale eginez gero, bertan behera uzten zen errituala eta berriro hasi behar izaten zuten buruzagi berria aukeratzeko prozesu osoa; izan ere, hiru tronpetek huts egiteak hautagaia ez zela egokia adierazi nahi zuen. Hirurek jo behar zuten. Hala ere, batek edo bik joz gero, aldi baterako buruzagitza eskuratzen zuen, buruzagirik egokiena bilatzen zuten bitartean.

Garapen zientifiko eta teknologikoaren eta kanpoko erlijioak sartu izanaren ondorioz, denbora gutxian aldatu dira fipen ohiturak eta usantzak. Aspaldiko ahozko ipuin bezala geratuko dira babesteko neurriak agudo hartzen ez badira.

Gaur egun nekazaritzatik bizi dira. Lurberritze-sistema erabili ohi dute produktuak aldi baterako lantzeko. Gehienbat artatxikia lantzen dute auzo-lanean.

Fipa hizkuntza (Cifipa, Fiba, Icfipa, Kifipa) Niger-Kongo familiako bantu adarrekoa da. Hiru dialekto nagusi ditu: Nkansi (140.000 hiztun), Kwa (45.000 hiztun) eta Milanzi (10.000 hiztun). Datu hauek 2002ko erroldakoak dira. Ethnologuaren arabera, hitz egiten den eremuetan egoera indartsuan dago adin-tarte guztietan.

Habari Leo egunkarian 2015eko abenduaren 18an argitaratutako artikulu batek bestelakoa dio, ostera. Artikuluaren izenburua “Kiswahili kinavyoathiri lugha ya Kifipa” (Swahiliaren eragina Fipa hizkuntzan). Hona artikulu horren zati batzuen itzulpena: “...gaur egun Fipa eta Mambwe tribuek garai batean jaietan eta ezkontzetan kantatzen zituzten kantak ia erabat galduta daude swahiliak irentsi dituelako.

John Msemakweli (85 urte) Sumbawangako Kizwite konderriko Fipa tribuko kideak dioenez, swahiliaren hedapenak fipa hizkuntzaren galera ekarri du Rukwan. 1950ean Rukwan ebanjelioa zabaltzeko fipa erabiltzen zen, baita inguruko beste tribu batzuen hizkuntzak ere, hala nola, Lungu, Mambwe eta Nyika. Tanzaniako beste eskualde batzuetako jendea lurralde horretara joan izanak aldatu egin du fiparen egoera; izan ere, swahiliak hartu du haren lekua...Cecilia Mbalamwezik (20 urte), Sumbawangako bigarren hezkuntzako eskolan graduatuak, adierazi digu bere familia Sumbawangan bizi dela, zazpi ume dituztela eta swahilia erabiltzen dutela nahiz eta denek fipaz jakin. Euren auzokoek ere swahiliz egiten dutela beti. John Sumiak (40 urte) dio noiz edo behin hitz egiten duela fipaz Kalambo herrixkara oporretan itzultzen denean, baina normalean swahiliz mintzatzen dela, maila jasoagoa duela agertzeko...

% 95 kristauak dira. Gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzen dute. Zeruan bizi den Ndaka izeneko jainkoa dute. Ndaka izenak “eguzkia” esan nahi du eta uste dute eguzkiak besteko indarra duela. Mungu Leza ere deitzen diote eta gaur egun ere agur egitean-eta erabiltzen dute jainko horren izena. Adibidez, lagun bi elkartzan direnean “Postuta” hitza esan ohi da. Erantzuna, berriz, “Tata itu Kalesa” edo “Ndakaitu kalesa”, hau da “ondo nago”.

2.17. Gogo

Tanzaniako erdialdeko Dodoma eta Singida eskualdeetan bizi da tribu hau. 1.500.000tik gora kide dira.

Gogoen bilakaeraren historian eragin itzela izan dute sikateek eta esklaboen trafikoak. Gaur egun ere Tanzaniako triburik pobreenetakoa da.



24. Irudia: Gogoak 1906an

Tribu honetako buruzagiei Mtemi deitzen zieten. Metemi horien buruzagitza-sistema kolonoak heltzearekin batera amaitu zen.

Azken Mtemia Mazengo izenekoak izan zen, Dodoma hiri-barrutiko Mvumi herrixkakoa.

Gogoen etxe tradizionalak “itembe” du izena. Etxeatiko hormak estrabeekin egin ohi dituzte argitik eta uretatik babesteko. Sabaian lurra eta egur-zati txikiak, “walo” izenekoak, nahastean. “Walo” horiekin batera, egur-zati handiagoak, “Mahapa” deritzenak, jartzen dituzte, baita egur-puska handiagoak ere, “michichi” deituak. Michichiak, batez ere, etxearen hagak egiteko dira. Azken urteotan, oster, etxe gehienak adreiluz egin ohi dituzte.

Gogo tribua nekazaritzatik eta abelazkuntzatik bizi da. Behiak, arkumeak eta ardiak hazten dituzte, “ng’ombe, mhene eta ngholo” Gogo hizkuntzan. Astoak (ndogowe) ere bai, lantzen dituzten produktuak garraiatzeko. Nekazaritza ere bizibide nagusienetakoa

¹ Ugali: Afrika Ekialdeko oinarrizko janaria. Arto-irinez egina, almidoi ugari duten osagaiekin egindako

dute, nahiz eta Dodoma eta Singida eskualdeek sarritan nozitzen duten euri eskasiak eragin kaltegarriak izan dituen.



25. Irudia: Gogoen dantza tradizionala

Artoa (mtama) eta juka dira gehien lantzen dituzten produktuak. Lurralde gutxi edukirik, batzuetan arroza eta mahatsa ere bai, batez ere salmentarako.

Gogoen janaririk ohikoena artoz egindako ugalia¹ da; janari arina eta digestioa egiten laguntzen duena.

Tearfund erakunde kristauaren kalkuluen arabera, emakumeen % 60-70ek ablazioa jasaten dute.

Gogo (Chigogo, Cigogo, Kigogo) du izena tribu honen hizkuntzak ere. 1.440.000 hiztun zituen 2006an. Lau dialekto nagusi ditu:

1. Nyambwa: Dodoma hiritik mendebalderanzko herrietan eta Singida eskualdeko Manyoni barrutiaren eremu batean egiten da.
2. Nyaugogo: dialekto honek beste hizkuntza batzuen eraginik txikiena du, garbiena dela esango genuke. Dodoma hiritik eki-hegoaldeko herrietan eta Mpwapwa barrutian egiten da Mvumi-ko Mtemi Mazengok gogo hizkuntzaren dialekto hau egiten zuen berba.
3. Tumba: Kongwa eta Mpwapwa barrutietan.
4. Etiliko: Hehe hizkuntzaren eragin handikoa. Mpwapwa barrutiko Kibakwe aldean hitz egiten da.

Hizkuntza indartsu dago adin-tarte guztietako kideen artean.

% 79 kristauak dira. Gainerakoek erlijio tradizionalak praktikatzen dituzte”

orearekin. Osagai horiek aldatu egiten dira ekualdeen arabera.



26. Irudia: Gogoen gitarra

2.18. Gorowa

Tanzaniako Manyara eta Dodoma eskualdeetan bizi den 50.000 bat kideko tribua da. John Sutton Afrikako tribuei buruzko ikertzailearen azterlanen arabera, Gorowa tribua Etiopian bizi zen Kristo aurretiko 1000. urtean. Ahozko historiak dioenez, antzina Gorowak eta Wairaqwak batera bizi ziren eta elkarlanean jarduten zuten talde handietan, baina apartatu egin ziren hizkuntza nilotikoa zuten beste tribu batzuekin izandako gerra dela eta.

Banandu ostean ere, hizkuntzen arloko ikerketetan agertzen denez, gorowa hizkuntzak baditu oraindik wairaqw mintzairatik hartutako hainbat berba. Esaten dute Etiopian Nilo ibaiaren ertzean bizi zela tribu hau eta apurka-apurka Malangwatay-ra hurbildu zirela. Eredu horrek gaur egun Eyasi du izena eta muga egiten du Tanzaniako Manyara eta Shinyanga eskualdeekin.



27. Irudia: Gorowa tribuko kideak

1700etik 1800era bitartean heldu ziren gorowak Afrika Ekialdera, lur emankorraren eskuz, nekazaritzan aritzeko ez eze, ganaduarentzako belarra edukitzeko ere, batik bat, behientzat, arkumeentzat eta ardientzat. Nekazaritzan, berriz, artoa, artatxikia, ilarrak eta ekiloreak lantzen dituzte. Gainera, etxe guztietan hazi behar dituzte oiloak, arrautzak eduki ahal izateko.

Bantu tribuek ez bezala, gorowak astoez baliatzen dira zamalanetarako eta idiek edo behiek tiratutako goldeak erabiltzen dituzte laborantzan. Tribu gutxieta bat da ekonomian eta gizarte arloko gaietan genero-berdintasuna errespetatzen duena. Emakumeak etxeko gauzez arduratzen diren bitartean, gizonaek erakuntzan eta abeltzaintzan aritzen dira. Gazteei ere aukera handiak eman ohi dizkiete familiaren bilakaeran.

Hortaz, denbora asko enplegatzen dute gazteei irakasten eta bizimodu arrakastatsua lortzeko bideak zabaltzen. Gorowen umeak jaio eta hazten direnako gizartearen bizitzeko balioak ikasten dituzte. Emakumeek alabei irakasten dizkiete gizonaekin bizitzeko eta familia hazteko balioak. Gizonaek, berriz, semei irakasten diete bizimodua euren kabuz zelan atera eta zelan zaindu familia.

Jaioberriei izena jartzeko, gertakariak hartzen dituzte kontuan. Konparazio baterako, Dotlaa izenak “aita lurra lantzen zebilela jaiotako mutikoa” esan gura du; Sakwa izenak, berriz, “neguan jaiotako neska” edota Bura izenak “ospakizun batean jaiotako mutikoa”. Izenik usuenetako bat Awaka da, hau da, “ilargi betearen argipean jaiotako neska”.

Gorowek, berez, ez zuten nahi euren seme-alabek estudiatu zezaten, beldur baitziren jatorrizko kultura eta ohiturak galduko ote zituzten hezkuntzaren bidez hedatzen den mendebaldeko herrialdeetako kulturari jarraituta.



28. Irudia: Gorowak trebeak omen goldearekin

Mutirik debekatua zuten eskolara joatea, abereak zaindu behar zituztelako. Neskek ere galarazia zuten eskola, azkar ezkontzea komeni zituztelako gurasoek dotea jaso zezaten. Neskei eta mutilei egiten diete zirkuntzisia, inimiziazio-errito handian. Ablazioa debekatuta dago Tanzanian, baina azken datuen argitalpenek ez dute erakusten ohitura horri utzi dioten ala ez. Gorowen ezkontzak egiteko, ados jarri behar dute ezkongaien gurasoek dotea emateko eta jasotzeko kontuetan.

Ordaindu beharreko dotea, jeneralean, hiru zekor eta zezen bat izan ohi da, baita artoaz eta eztiak egindako edari alkoholaduna ere. Egundorretan, gazteak libre dira ezkongai bilatzeko eta erlijioaren araberrako ezkontza antolatzeko, nahiz eta dotea kontuan hartzea den tribu honen ohitura eta usantza.

Gorowen jatorrizko etxea msonge deritzona da, hau da, egurrez egina eta belarrez estalia. Aldatu egin behar izan zuten, baina, etxeen egitura, masaieen aurkako gerran hobeto babestu ahal izateko.

Teilatu lauko etxeak egiten hasi ziren, tunelen antzekoak, belar bakoak; izan ere, etsaiek erraz ematen zien su belarrezko teilatuei. Afrika Ekialdeko tribuen kulturari, ohiturei eta usantzei buruzko idazlea den Gervase Mlola-k dio gorowa askok gaur egun etxe modernoak egiten dituztela, adreilua eta burdina galbanizatu malgua erabilita.

Sano berezia da umeentzat eta gaztetxoentzat Naa edo Aniimi's izeneko danborra; izan ere, danbor hori jo ondoren, gazte nagusiagoek harrera egin ohi diete gazteagoei eta elkarrekin joaten dira ehizan egun osorako. Lortzen duten haragia neskatilek eta mutikoen eramaten dute herrira, denek batera jateko.

Gorowa tribuak auzitegi tradizionala du gatazkak konpontzeko eta komunitateak bakean irauteko. Epailak tribuko "adinekoak" dira eta hartzen dituzten erabakiak antzinako "zaharrek" hartutakoetan oinarritzen dira. Emakumeen Auzitegia ere badute. Emakumeen kasuak edota euren estatusaren aurkako auziak, emakumeen gaiak epaitzen dituen auzitegi horretan aurkezten dituzte.

Jartzen dituzten zigorrei "Dohho" esaten zaie. Egindako kaltea behiekin, arkumeeekin edo ardiekin ordaintzea izan daiteke zigorra edota erruduna komunitatetik kanpora botatzea; Bayni deitzen zaio zigor horri. Egindako delitua larria bada, eta akusatua delitu hori egin izana ukatzen badu, madarikazio-zina eskatzeko eskubidea du. Zin egin aurretik, "zaharrek" delituaren larritasuna neurtzen dute. Delitua hilketa denean, akusatua hildakoaren hilobian egin behar du madarikazio-zina.

Tanzaniaren independentziaren aurretik, gorowen buruzagia "Wawitamo" izeneko zen. Eskualde osoa gobernatzen zuen. Honen mendean Gaawsamo deritzona. Gaur eguneko barrutien antzeko eremua gobernatzen zuen. Ondoren, "Yaabusmo" izeneko, zergak batzen eta batzarretarako deialdiak egiten zituen Gaawsamoak aginduta. Azkenik, "Booymo" edo aguazila.

Gorowek gerra izan zuten Barbaig eta Iraqw tribuen aurka, abelburu gehiago eskuratu ahal izateko. Irabazleek preso hartutako etsaiak askatzeko sei bigantxa eta zekor bat eskatu zuten preso bakoitzeko.

Gerrak indarkeria eta galerak zekartzala ohartuta, sakrifizio batekin amaitzea erabaki zuten. Hartara, akatsik gabeko ahari beltza hil zuten eta harrezkero bakean bizi izan dira tribu horiek. Auzo-lanaren parekoa den Slaqwe sistema dute lurra lantzeko, ura aurkitzeko eta etxeak eraikitzeko.

Gorowa (Fiome, Goroa, Gorwaa, Ufromi) du izena tribu honen hizkuntzak ere. Afroasiar familiako Hegoaldeko Cushit adarreko mintzaira da. 50.000 hitzuntz zituen 1999an. Ethnologuaren arabera, hizkuntzak

indartsu dirau adin-tarte guztietan. Iraqwez eta swahiliz ere egiten dute. Erljio katolikoa eta tradizionala dira nagusi gorowen artean.

2.19. Gweno

Tanzaniako Kilimanjaro eskualdeko Upare mendiaren iparraldean (Ugweno aldean) bizi da tribu hau. Antza denez, Kenyako Taita eta Voi lurraldeetatik iritsi ziren Tanzaniara, baina jatorriz Habesha aldekoak omen dira. Euren hizkuntza bantu familiakoa den arren, kultura eta ohiturak bestelakoak dira. Gwenoek erabiltzen duten danborra ere, Mrangi deritzona, ez da bantuena bezalakoa.

Kenyatik antzina irten ziren Ugweno mendian finkatzeko, Taita eta Voi tribuen arteko borroketatik ihesi. Baina bada beste kontakizun bat dioena Upare mendira abiatu aurretik esploratzaileak bidali zituztela. Lurralde hartara ailegatu eta hango berriekin itzuli ei ziren. "Mringa ua khona" (hango ibaiek ahotsa dute) zioten. Orduan sortu omen zen Ugweno izena, "astrapala" alegia. Gorabehera horiek aise zabaldu ziren inguruetako tribuetaraino. Hortaz, esan daiteke Ugweno mendira etxea egitera joandako guztiak direla gwenoak. Beraz, arbasoak Taita, Voi, Chaga edota Upare tribuetakoak ziren.

Antzinako gwenoak paganoak ziren. Euren jainkoak Rubha (eguzkia), honen emazte Mwiri (ilargia) eta euren seme-alabak (izarrak) ziren. Izpirituak ere gurtzen zituzten. Gweno tribuko aztiak animaliak hiltzen zituen eta larrutu Ngondiny zeritzon eremu berezian. Animalia horien atalez baliatuta etorkizuna asmatzen zuten. Eremu horretan gizonezkoak bakarrik sartzen ziren, gwenoen aztiak gizonezkoak zirelako. Ngondiny horien inguruan Mathale izeneko belarra ereiten zuten, euren erlijio tradizionalan landare bedeinkatua zelako. Aztiak sakrifikatutako animalia txikitu egiten zuen eta lurra laga; gero, Dengelua izeneko edari alkoholikoa hartu eta, zerura begira, RBHA KAGHU NGOMA MBAI (sinesten dut jainkoa zeruan dela) zioen; gero, edaria tribuko kideen artean banatzen zuen, euria egiteko zein atertzeko eskatuz. Ume elbarriak ere sakrifikatzen zituzten IGHWE YA BHANA (umeen haitza) izeneko haitzean. Umea lotan zela haitzaren gailurrean jartzen zuen aztiak eta bat-batean esnatzen haitzetik erori eta hil egiten zen, horrela tribuaren lotsaizuna garbituz.

Gwenoen ahozko ipuin ugari dago. Kindobhai izeneko gizon aberatsa gaur egun Tsavo erreserba den lurraldetik bota zutenean, hango ibaia (Tsavo izeneko hura ere) zeharkatzeko ur gainean makilaz jo eta urak baztertu egin omen ziren jaun hori, bere ganadua eta jarraitzaileak pasatzeko.

Gweno (Ghonu, Kighonu, Kigweno) du izena talde etniko honen hizkuntzak Niger-Kongo familiako bantu adarrekoa da. 2.200 hitzuntz zituen 2006an. Mwanga barrutian hitz egiten da, batez ere, Kifula, Kikweni, Lambo, Mangio, Masumbeni, Mcheni, Msangeni, Mwaniko eta Simbomu herrietan. Adinekoak dira euren

jatorrizko hizkuntza egiten dutenak. Belaunaldi gazteagoak swahilira pasatu dira. Ethnologueren arabera, hizkuntza galzorian dago. Transmisioa duela 20 bat urte hasi zen eteten.



29. Irudia: Mwangi barrutiko herrixka, Ugweno mendirako bidean

Gaur egun, % 95 kristauak dira eta gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzen dute.

2.20. Ha

Tanzaniako Kigoma eskualdean eta Burundiko mugan bizi da talde etniko hau. Rundi eta Haya tribuen arteko nahastea da, gerratik ihes janari bila lurralde horretara iritsi ziren garaikoa. Tanganyika aintziraren inguruan finkatu eta nekazaritzan, arrantzan, abelazkuntzan eta ehizan aritu ziren. Klan bakoitza harro sentitzen zen mendien, txorien ibaien eta abarren izenak erabiltzeaz.

Nekazaritzan lantzen dituzten gai nagusiak: artoa, indaba, banana, kafea, manioka, fruitu lehorrak, ilarra, patata, artatxikia, arrosa etab.

Arrantzan egiten dute Tanganyika lakuan, Malagarasi, Rwiche eta Mkoza ibaietan eta Nyajijima, Mresi eta Kazingu erreketan, besteak beste.

Abeltzaintzan, berriz, behiak, arkumeak, oiloak, ahateak, txerriak, untxiak, txakurrak, katuak etab. hazten dituzte.

Lantzen dituzten gaiak eta harrapatzen dituzten arrainak merkataritzarako dira gehienbat.

Jatorrizko janzkia mpuzu izenekoa da, zuhaitzen azalekin egina eta etxea msonge, egurrezkoa eta buztinezkoa.

Burundirekin muga egiten duen lurraldea denez, jendearen joan-etorri ugari aldea da eta hango talde etniko asko dira Kigomako tribu natibotzat dutenak euren burua.



30. Irudia: Ha tribuko emakumeek haurrari 2-3 urtetan eman ohi diote bularra

Niger-Kongo familiako bantu adarreko Ha (Giha, Igiha, Ikiha, Kiha, Ruha, Ruhaa) hizkuntza egiten dute. 990.000 hiztun zituen 2001ean. Kinyarwanda eta Kirundi hizkuntzen oso antzekoa da. Egoera indartsuan dago adin-tarte guztietan.

2.21. Hadza

Tanzaniako Rift haraneko Eyasi aintziraren inguruan eta Serengeti aldean bizi den talde etnikoa da. Ehiztari/biltzaileak dira. Iturburu eta testuinguru arabera, hainbat izen erabili ohi dira tribu hau izendatzeko: Hadsa, Hadzabe, Hadzabi, Hadzapi, Hadzapis, Hadzas, Hatsa, Kangeji, Kangeju, Kindiga, Ndiga, Tindiga, Tindigo, Wakindiga, Watindega.

Tanzaniako lehenengo biztanle ezagunak dira. Berrogei mila urte dira Eyasi lakuaren inguruan bizi direla. Mila bat kidek osatzen dute taldea; horietako 300-400 ehiztari/biltzaileak dira, euren arbasoak duela milaka urte, nekazaritza asmatu aurretik, ziren legetxe.



31. Irudia: Hadza tribukoak sua egiten

Ez dute araurik, ez egutegirik, ez dute lurra lantzen, ez dute animaliarik, ezta ez bizileku finkorik ere. Ez dute ez hiletarik, ez bestelako zeremoniarik antolatzen. Afrikako azken ehiztari/biltzaileak dira. Emakumeek

biltzen dituzten frutak, baiak eta zuztarrak dira euren elikagaririk behinenak. Gizonezkoak, ordea, ezta batu eta ehizan aritzen dira uztaiekin.

Sexuen araberako lan-banaketa gorabehera, genero-berdintasuna zorrotz betetzen du talde etniko honek: jabetza pribaturik ez, buruzagirik ez, erlijio-araurik ez. Tribu honentzat lurren jabetzak eta kontrolak ez dute zentzurik. Kide biren arteko gatazka sortzen bada, euretako batek beste kanpamendu batera joatea aukeratzen du, liskarra konpontzeko. Beste horrenbeste ezkontzekin: nahi dutenean batzen dira eta nahi dutenean apartatzen.

Hadza batzuek aspaldiko bizimodu tradizionalari eustea lortu badute, neurri handi batean alboko lurraldeetako tribuentzat hadzen lurrak erakargarriak ez direlako izan da, lur elkorrak baitira. Hala ere, nekazaritzak aurrera egin zuen etengabe XVIII. mendean eta hadzek lehen zuten lurraldearen laurdena baino ez dute gaur egun.

Katea estutzen ari da hadzen inguruan. Eyasi aintziraren ekialdean garitza sail handiak hedatu direnez, duela hiru mila urte Etiopiatik iritsitako Iraqw tribua jaitsi egin da goi-lautadetatik. 250.000 kideko herri honek soildu egin ditu hadzen lurrak, artoa ereiteko.

Presio berbera hegoaldean: orain bostehun urte paraje hartan finkatutako Isanzu bantu tribua, aintziraren ingurura aldatu da, lur-eskasiaren ondorioz. Iparraldean, berriz, tipula-ustiategien gorakada dela-eta Tanzaniako bazter guztietatik heldu dira langileak hadzen lurretara. Baina, batez ere, jatorriz Egiptokoak eta Sudanekoak diren Datoga tribuko abeltzainak dira benetako mehatxua hadzen bizimoduaren iraupenerako.

Larre berrien bila, datogek euren animaliak hadzak ehiztari/biltzaile moduan bizi diren mendixketan uzten dituzte bazkan. Azken berrogeita hamar urteotan hadzek euren lurraldearen % 75 galdu dute. Eyasi aintziraren aroko biztanleria % 300 gehitu da azken hogeai urteetan.

Tanzaniar askorentzat, hadzek ez dute lekurik modernizatzen ari den herrialdean. Tanzaniako ministro batek adierazi du hadzak “atzeratuta” daudela.



32. Irudia: Hadzak

Tanzaniako gobernuak eskolara bidali eta etxe eta lan duinak eman nahi dizkie.

Zaila da oraingoz, baina. Izan ere, langile moduan kontratatatu dituzten askok alkoholari eman diote. Beste batzuek, ordea, turistek emandako lau txakur txikiren truke ehiztari/biltzaileen bizimodua antzezten dute.

Talde honen iraganari buruzko ahozko tradizioaren arabera, lau alditan banatua dago historia, bakoitza bere ezaugarriekin. Garaien hasieran, munduan Akakaanebe edo Gelanebe (arbasoak) izeneko erraldoi iletuak bizi ziren. Ez zuten erremintarik eta ez zekiten sua egiten. Animaliak begiradaz hiltzen zituzten eta gordinek jaten. Ez zeukaten etxerik; arbolapean egiten zuten lo, orain udan egin ohi duten legez.

Bigarren aldian Tlaatlanebe iletik gabeko erraldoiak bizi ziren. Bazekiten sua egiten eta haragia erretzeko erabiltzen zuten. Animaliak, ordea, gizakiak baino zuhurrago bilakatu ziren eta txakurrekin harrapatu behar izaten zituzten. Tlaatlanebeak lehenak izan ziren botikak eta arerioengandik babesteko kutunak erabiltzen. Leize-zuloak zituzten bizileku.

Hirugarren aldian Hamakwabe izenekoak. Ez ziren aurrekoak bezain handiak. Uztaiak, geziak eta janariak maneatzeko ontziak asmatu zituzten. Lehenak izan ziren gizakiekin harremanak edukitzen.



33. Irudia: Hadza tribuko umeak ehizarako prestatzen

Laugarren aldian (gaur egun), Hamaishonebe izenekoak bizi dira. Garai honetaz hitz egiten dutenean, sarritan izen eta leku jakinak aipatzen dituzte eta gertakariak zenbat belaunaldi lehenago jazo ziren ere zehazteko gai dira.

Oscar Baumann esploratzaile alemaniarren 1894ko *Durch Massailand zur Nilquelle* lanean agertzen dira hadzak aurrenekoz. Hadzak ezkutatu egiten ziren esploratzaileak barrundatzen zituztenean. Hadzei buruzko kontakizunak “beste batzuei entzundakoak” dira, bigarren eskukoak, alegia.



34. Irudia: Hadzen etxea

Hadza hizkuntza (Hadzabi, Hadzape, Hadzapi, Hatsa, Kangeju, Kindega, Kindiga, “Tindiga” (pej.), Wakindiga) hizkuntzen artean sailkatuta zegoen XX. mendearen amaiera aldean, kliquen erabileran oinarrituta, baina gaur egun ez da onartzen sailkapen hori. Hizkuntza isolatutzat jotzen da. 800 hiztun zituen 2000. urtean. Hizkuntza mehatxatuen artean dago, baina erabilera aldetik indartsu adin tartetuetan.

% 30 kristauak dira. Gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzen dute.

2.22. Shubi eta Hangaza

Tanzaniako ipar-mendebaldeko Kagera eskualdeko Ngara barrutian bizi diren bantu adarreko tribu bi dira. Tribu bikiak deitzen diete, euren kulturak, ohiturak eta hizkuntzak oso antzekoak direlako.

Tanganyikako independentziaren aurretik, 11 buruzagi edo chifu izan zituzten shubiek; azkena Chifu Nsoro IV.a. Hau da buruzagi horien zerrenda: Magina I.a, Kibogora I.a, Nsoro I.a, Kinanaira I.a, Magina II.a, Kibogora II.a, Nsoro II.a, Kinanaira II Birondo (---- 1883), Magina III Mwitaba (1883-1918), Nsoro III Nkundabagore (1918-1931) eta Protase Nsoro IV (1931 – 1962ko azaroaren 9a).



Wachezaji wa ngoma wa “Imwivereko” wakitoa heshima kwa

35. Irudia: Shubien dantza tradizionala

Hangazek, berriz, 9. Honako hauek: Baramba I, Mpanda, Ruvubi, Rusibana, Rusengo (Rusibanaren loba, Rundi eta Hangaza tribuen arteko gerran Rusibana hil

ondoren), Kinyamazinge (Rusengoren sema), Baramba II.a, Mpanda II.a eta Ruvubi II.a. Ngarako lurrak emankorrak direnez shubiak nekazaritzan aritzen dira. Bananak, artoa, indaba, patata, artatxikia, juka eta kafea dira gehien lantzen dituzten gaiak. Behiak, arkumeak, ardiak eta oiloak ere hazten dituzte. Hala ere, alde batzuetan abelazkuntza da euren diru-sarbiderik oparoena. “Ankole” deritzon ganadu-mota hazten zuten, handia eta adar luzekoa. Alabaina, abereen gaixotasunak eta bizimoduaren aldaketak direla-eta arraza gogorragoko ganadua (txikiagoa eta adar laburrekoa) haztera behartuta daude orain.

Familiak irabazi gehiago eskuratzeko, shubiak eta hangazak, nekazaritzaz gain, errementaritzan ere aritzen dira eta ezta batzen ere bai, gero saltzeko. Tribu bi horien jatorrizko etxeak ere msonge motakoak ziren (egurrez eta buztinez eginak, biribilak eta belarrez estaliak).

Laboreak etxearen kanpoko aldean eraikitako biltegietan, “ikigega” izenekoetan gordetzen dituzte.

Garai batean ezkontzak tribuaren ohiturei eta usantzei jarraituta egin ohi ziren. Gaur egun, ordea, musulmanen eta kristauen sineskeren arabera. Nolanahi ere, familia askok erlijio berrietan oinarrituta ezkondu arren, ezkontzak ospatzeko eta baliozkoak izan daitezen tribuaren ohituren eta usantzen prozedura bete behar dute ezkongaiak.

Neskek, ezkondu aurretik, prestakuntza berezia jaso behar dute. Prestatzaileak amonak eta izebak izaten dira. Gizartean senarrarekin nola bizi behar duten irakasten diete, oro har. Ezkontzaren bezperako egunean izaten da “ukuraza” izena duen prestakuntza-saio hori neskaren gurasoen gelan egiten da. Horretarako aitak alde egin behar du eta auzoan eskatu ostatua.

Emaztegaia nebak eramaten du bizkarrean zeremonia egiten den lekura. Han, makilaz jotzen dute, jakin dezan zigorra datorkiola prestakuntza-saioan irakatsitakoa betetzen ez badu eta, ezkondu ondoren, une zoriontsuak eta zoritxarrekoak daudela. Gurasoen herentzia ere une horretan jasotzen dute.

Neskaren aitak artatxikiz egindako edari alkoholduna edan behar du, alabaren ezkontza onartu duela adierazteko. Tribu hauen antzinako ohituretan, ezkontzetan jendeak edan egiten zuen, baina ezelako janari barik. Debekatua zuten jatea horrelakoetan. “Ifura iranywa ntidya” (errespetuko jendeak edan egiten du, baina ez du jaten) esan ohi zuten.

Neskek ezkondu aurretik haurdun geratuz gero, etxetik bota eta baztertu egiten zituzten gurasoek, familiaren lotsa saihesteko. Dena den, gaur egun ez dute horrelakorik egiten. Aitek debekatua zuten alaba ezkondu zen etxean sartzea, amaren baimenik gabe.

Aitak, alaba bisitatzera zihoanean, etxearen kanpoaldean geratu behar zuen, berarentzat beren-beregi prestatutako gela batean. Osaba ere ezin zen sartu loba

ezkonduaren etxean. Gaur egun ez dute horrelako araurik betetzen; askatasun osoa dute sartzeko eta irteteko.

Gurasoak hiltzen direnean gizonezkoak bakarrik jasotzen dute herentzia, emakumezkoek ezkontza-egunean jasotzen dutelako.

Niger-Kongo familiako bantu adarreko Shubi (Kishubi, Kisubi, Shuwi, Sinja, Sinya, Subi, Urushubi) hizkuntzak 153.000 hiztun zituen 1987an. Ethnologueren arabera, hizkuntza mehatxatua da.

Hangaza hizkuntzak, berriz, 150.000 hiztun zituen. Hizkuntza egoera indartsuan dago. Adin-tarte guztietakoek erabiltzen dute eta euren jarrera positiboa da.

Edozelan ere, shubia eta hangaza hizkuntza bat beraren aldaerak dira. Berdinak dira % 90ean. Inguruko beste hizkuntza batzuen eragin handia dute, ha (% 77ko berdintasuna), subi (% 85ekoa), kirundi (% 83koa) eta kinyarwanda (% 72koa) mintzairena, berbarako.

2.23. Haya

Tanzaniako ipar-mendebaldeko Kagera eskualdeko Mukoba eta Muleba barrutietan, Victoria aintziraren ondoan, bizi den talde etnikoa da. 1991n 1,3 milioi kide ziren. Bi tribuk osatzen ei zuten talde hau: alde batetik Iru izenekoak (bantua) eta, bestetik, Hima tribuak (nilotarra). Bantuek berenganatu egin zituzten nilotarrak. Uste da, gerora, bantuen hedapenaren garaian iritsi zirela Kagerara. Metala lantzen hasi zen aurreneko tribuetakoa omen da hau.



36. Irudia: Tanzaniako Kagera eskualdea berde ilunez

Talde txikietan zeuden antolatuta, feudalismoaren antzeko sisteman, plebeio eta jauntxoekin.

Europarrek kristautasuna eraman zutenean eskualde horretara, Laurian Rugambwa kardinalaren lana garrantzi handikoa izan zen erlijio katolikoa bultzatzeko. 1978an Haya tribuaren lurraldea bereganatu nahi izan zuen Ugandako Iddi Amin Dada presidenteak. Tanzaniako armadak parte hartu eta inbaditzaileak lurralde hartatik kanpo bota zituen.

Kafea, banana, indaba eta artoa dira gehien lantzen dituzten gaiak. Behiak eta ahuntzak ere hazten dituzte.

Merkataritzan ziharduten kolonizatzaileak iritsi aurretik ere.

Petrikiloak (omufumu) belarrak eta izpirituen indarra erabiltzen ditu gaitzak sendatzeko. Izpirituen eta gizakien arteko bitartekari ere bada.

Hayek beste tribu batzuek bezalako kultur ohiturak dituzte. Esaterako, ehiztariak animalia handiak edo arriskutsuak harrapatzen dituztenean, ehiztariak goraltzeko jai handia ospatzen dute, “ebyebugo” deritzotena.



37. Irudia: Hayen msonge motako etxea.

Haya (Ekihaya, Kihaya, Luhaya, Oruhaya, Ruhaya) hizkuntza Niger-Kongo familiako bantu adarrekoa da. 1.300.000 hiztun zituen 2006an. Egoera indartsuan eta goraka doan hizkuntza, adin-tarte guztietakoek erabilia eta jarrera oso aldekoa hiztunen aldetik.

Haya gehienak katolikoak dira eta asko baloratzen dituzte lanbide berriak eta hezkuntza.

Hona tribu honi buruz *China Radio International* irratia ren web orrian 2010eko urtarrilaren 1ean swahiliz argitaratutako eta egilearen izenik aipatzen ez duen artikulua ren itzulpena, lagungarria talde etniko hau hobeto ezagutzeko:

2.23.1. Haya, Tanzaniako talde etnikoa

Diotenez Haya tribua Egiptotik irten zen eta, Uganda zeharkatu ondoren, Tanzaniako ipar-mendebaldeko Kagera eskualdean finkatu.

Tribu honen hizkuntza Ugandako hizkuntza batzuen oso antzekoa da. Kulturak eta lantzen dituzten gairik garrantzitsuenak ere bai.

Mwanzatik ontziz Victoria aintziratik zehar Bukobara iritsi ginen, han bizi baitira hayak. 16 ordu behar izan genituen Mwanzatik Bukobara heltzeko.

Ailegatzean hayen buruzagiaren (mtemi) egoitzara abiatu ginen, tribu honen kultura eta ohiturak ezagutzeko.

Tribuko buruzagiaren aholkulari eta tribuko zaharretakoa den Petro Reueziani Butanga jaunarekin batu ginen.

Emmanuel Rukamba buruzagi zena non bizi zen erakutsi zigun aurrena.

Antzina ez zeukaten poxpolorik eta tribu honek Mrinzi izeneko egur motaren puska lehor bi marruskatuz pizten zuten sua.

Europako misiolariak heldu zirenean, lurraldea ezaguna zen lehenengo kardenal katolikoa, Laurian Rugambwa, hangoa zelako.

Gainera, tribu honek sano estimatzen du hezkuntza beste tribu batzuen aldean.

1978an Kagera lurraldean sartu zen Ugandako armada, nazio horretako presidentea Idi Amin Dada zela. Tanzaniako armadak, ordea, menderatu egin zuen.

2006an 1.300.000tik gora ziren tribu honetako kideak.

Gobernu nazionala eduki aurretik, “mtemi” izenez ezagutzen zirenak zuzentzen zuten tribua.

Ezkontza da hayek gehien errespetatzen duten gaietako bat. Dotea (behiak edo arkumeak) neskaren aitak jartzen du alde biak adostuta. Hala azaldu digu Petro Reueziani Butanga jaunak.

Zortzi klanetan banatuta daude hayak: Bumbira, Edangabo, Ganda-Kiaka, Hamba, Hangiro, Mwani, Nyakisisa, Ekiziba eta Yoza.

Debekuak ere badituzte tribuan, esaterako Mjuju edo Mjunangoma izeneko zuhaitza moztea. Izan ere, zuhaitz horren azpian egin ohi zituen buruzagiak bere zeremoniak eta, hortaz, zuhaitz sakratutzat dute.

Emakumeek ezin dutela matxinsaltorik jan adierazi digu Butanga jaunak.

Buruzagiak herrira edo bere lurraldeko norabait joan behar badu, bere tribuko kideek garraiatzen dute hamaka berezi batean eserita. Hamaka daramatenak txandakatu egiten dira. Ohore handia eta bedeinkazio modukoa da eurentzat buruzagia garraiatu ahal izatea.

Emmanuel buruzagia hil zenean, haren seme zaharrenak, Innocent Rukambak, hartu zuen kargua.

Buruzagiaren bizilekura iritsi ginenean Dar es Salaamera joana zen eta bere anaia Mamwanzi Rukamba jaunarekin mintzatu ginen; azaldu zigunez, bere aita zenak bost emakume eta hogeita hamabost seme-alaba zituen.

Haye jatorrizko etxeak egurrez eginak dira eta belarrez estaliak, bai teilatua, bai hormak. Zoruan belar berezia zabaltzen dute alfombra moduan erabiltzeko.

Kitwe herrixkara ailegatu ginenean Bernedetta Dominic emakumea ezagutu genuen. Hayen jatorrizko etxe batean bizi da. Etxe berean zazpi lagun eta

arkumeak bizi dira. Benedettak hirurogeita hamar urte ditu eta hogeira hamabost daramatza etxe horretan. Hayen kulturak historia luzea duela dio. Uste da lehenengoetarikoak izan zirela burdina eta altzairua lantzen.

Azkenik, Kagera museoa bisitatu genuen Bukoba hirian. Eraikin dotorean dagoen museo horretan hayek erabiltzen zituzten hainbat tresna daude ikusgai, eurek egindako edari alkoholoduna gordetzeko balio duten kalabazak edota burdina lantzeko baliatzen zituzten erremintak esaterako.

Hormetan, berriz, hayen lurraldean aurki daitezkeen zuhaitzen, txorien, arrainen eta sugeen argazkiak daude.

Leodegerius Rwekizo jauna da museoko turismo-gidaria eta han gordeta dauden hainbat tresnen berri eman zigun.

Bukobatik irten ginenean Mwanzara bidean, gehixeago genekien hayek gaur egun ere ondo zaintzen duten kulturari buruz.

2.24. Hehe


Tanzaniako Iringa eskualdeko barrutietan bizi den talde etnikoa da. Jatorri ezezaguneko herria da. Garai koloniala baino belaunaldi gutxi batzuk lehenago zeuden finkatuta Uhehe lurraldean, hau da, Iringa eskualdean, Tanzaniako hego-mendebaldeko goi-lurretan, Malawi aintziraren ipar-ekialdean. Nekazariak ziren gehienbat, nahiz eta tarteka behiak eta ahuntzak hazi.



38. Irudia: Tanzaniako Iringa eskualdea

Klan txikietan zeuden antolatuta, bakoitzak bere buruzagia zuela. 1840. urtearen inguruan gerra latza izan zuten, Mozambikeko Ngoni tribuaren inbasioari aurre egiteko. Garai hartan, klan guztiak batu ziren Nguruhe klanaren nagusi eta Muyinga dinastiaren sortzailea izan zen Munyingumba buruzagiaren aginduetara. Lider honen heriotzaren ostean (1878 edo 1879), Mwumbambe izeneko esklabu batek (Nyamwezi tribukoak) errege hil berriaren anaia hil zuen, erregetza bereganatzeko asmoz, baina Munyumbaren semeak, Mtwi Mkwawa izenekoak, hil zuen esklabu hori eta berak hartu zuen errege kargua.

Mkwawaren agindupean iparralderanzko bide komertzialak kontrolatu zituzten heheek. 2.000-3.000 gizonak osatutako armada zeukan. Beste 20.000 gizon, berriz, gertu azkar mobilizatzeko moduan.



39. Irudia: Hehe tribuko gerlaria

1885ean hasi ziren alemaniarrek Tanganyikako kolonia osatzen. Mkwawa, alemaniarren berri izan zuenean, eurekin harremanetan jarri arren, ez zuten ezelako akordioarik lortu.

Aurreneko borroketan, Julius von Soden koloniako gobernadorearen soldaduen aurkakoetan, heheak atera ziren garaile. Uste da garai horretakoa dela “hehe” hitzaren jatorria, gerrerako zuten oihutik datorrela, hain zuzen “ji twahumite, twahumite hee, he he he ji “ (He, iritsi gara, he he).

Von Sodenen ondorengoa izan zen Freiherr von Schele ere ahalegindu zen heheekin negoziatzeko, baina ez zuen arrakastarik izan. 1894an alemaniarrek eraso eta Iringa hiriburua hartu zuten mendean. Mkwawak borrokan adoretu jarraitu zuen hala ere. 1896an heheen talde batzuk errenditu egin ziren. Mkwawa gero eta isolatuago zegoen eta ezkutatu beharra izan zuen.

1897ko uztailan, sangu eta hehe tribuetako kideek osatutako baina alemaniarren aginduetara zegoen indar armatuak Mkwawaren ezkutalekua aurkitu arren, alde egitea lortu zuen.

1898an ezkutatuta jarraitu zuen Mkwawak, baina gizon oso gutxi zeukan bere aginduetara. Bi besterik ez, Musigombo eta Lifumika izenekoak. Uztailaren 19an Lifumbikak alde egin zuen, baina alemaniarrek harrapatu eta Mkwawa non zegoen aitortzera behartu zuten. Hura atxilotzera zihoazela tiro bakarra entzun zen. Bere burua hil zuen Mkwawak.

Diotenez, alemaniarrek burua moztu zioten Mkwawari eta Berlingo museora bidali lehenengo eta Bremenekora ondoren.

Alemaniarren Tanganyikako gobernua ingelesak eskuetara pasatu zen 1918an, Lehenengo Mundu Gerran.

Tanganyikako koloniako gobernuko buruak Mkwawaren burua itzultzeko proposatu zuten alemaniarrei, baina ez zutela haren buru-hezuraren berririk erantzun zuten. Bigarren Mundu Gerran, berriz, Alemania menderatu ostean Tanganyikako gobernadoreak itzularazi egin zuten Mkwawaren buru-hezurra. 1954ko uztailaren 9an heldu zen Tanganyikara eta Kalenga herrixkako museoan dago gaur egun.



40. Irudia: Mkwawaren buru-hezurra Kalenga herrixkako museoan.

Heheen gizarte tradizionalan seme-alabek aitaren abizena zuten. Ezin ziren abizen berekoen artean ezkondu. Senargaiak dotea ordaindu behar zion neskaren familiari, behi bi eta idi bat gutxienez. Dibortzioa onartua zegoen; kasu horretan, senarrak hazi behar zituen seme-alabak baina itzuli egiten zitzaion ezkontzeko jarritako dotea.

2006an 805.000 kidek osatzen zuten talde etniko hau.

Niger-Kongo familiako bantu adarreko Hehe (Ehe, Ekiehe, Kihehe) hizkuntza erabiltzen dute. 805.000 hiztun zituen 2006an. Ethnologuaren arabera, goraka doan mintzaira da. Dialekto nagusi bi ditu: Kosisamba (Kojisamba, Kotsisamba) eta Sungwa (Dzungwa, Tsungwa).

Heheen % 96 kristauak dira.

2.25. Ikizu

Tanzaniako ipar-ekialdeko Mara eskualdeko Bunda barrutiko Ikizu lurraldean bizi da tribu hau; egin-eginean ere, 600 bat kilometro karratuko paraje menditsuan.

Nekazariak eta abeltzainak dira gaur egun, antzina ehiztariak baziren ere. Ikizu askok elizetan, eskoletan edo gobernu lokalean egiten dute lan orain. Ahuntzen, behien eta ardiaren haragia jaten dute, baita oinarrizko beste janari batzuk ere, indabak eta ugalia besteak beste.

Juka, artatxikia, indaba eta artoa dira gehien lantzen dituzten gaiak, baina ez euren kontsumorako, saltzeko baizik.

55.000 kidek osatzen dute talde etniko hau.



41. Irudia: Ikizu tribuko kideak

Ikizu lurraldearen erdialdean, Nyamuswa herrian, Omongwe izeneko zuhaitza dago. Esaten dutenez, ikizuek euren lurraldearen mugak finkatzeko eta mugok zaintzen laguntzeko izpirituak batu nahi zituzten. Omongwe bat aurkitu zuten Nyamuswa mendixkan eta haren inguruan eraiki zuten euren herri nagusia. Bilatu zuten arbolarik handiena zen, beraz argi zeukaten izpirituek babestuta zegoela. Gaur egun ere, galarazita dago haren adarrak edota hostoak apurtzea; hori egiten duenari zigorra jartzen diote, jeneralean behi bat hiltzea. Ingalaterrako Isabel II.a erregina ere Nyamuswan izan zen Omongwe ikusteko.



42. Irudia: Omongwe

Bantu familiako Ikizu (Ikiikiizu, Ikiizo, Ikiizu, Kikiizu, Kizu) hizkuntza hitz egiten dute. Ikizu eta Sizaki herriek euren arteko alde txikiak eduki arren, talde ezberdintzat daukate euren burua. 50.000 pertsona ikizuek dira eta 5.000 sizakiak. Edozelan ere, sizakia ikizuren dialektotzak jotzen da, berdinak direlako % 95ean.

Hizkuntzak indartsu dirau adin-tarte guztietako biztanleen artean. Ikizuen eta zanakien (ipar-ekialdeko auzokoak) arteko harremanak beti izan dira onak, baina

ez, ordea, ipar-mendebaldeko Ngoreme tribukoekin ganaduaren lapurretak direla eta.

Ikizu askok kristauak edo musulmanak direla dioten arren, erlijio tradizionalak indar handia du tribu honetan.

2.26. Ikoma

Tanzaniako iparraldeko Mara eskualdeko tribua da. 1987an 15.000 kide ziren. Ikomek lotura estua dute Ngorome eta Issenye herriekin; badirudi herri horiekin batera joan zirela Serengeti barrutira, atzean utzita euren hurbileko ahaide den Sonjo tribua. Lau tribuak bizi ziren ehizatik eta bilketatik; geroago bihurtu ziren nekazari.

Gehien lantzen dituzten gaiak artatxikia, kakahueteak eta basartoa dira. Ardiak, behiak eta ahuntzak ere hazten dituzte jateko, merkataritzan aritzeko eta ezkontzako doteak ordaintzeko. Nekazaritzara pasatu ondoren ere, ehizan egin ohi zuten proteinak lortzeko. Etxeko animaliak zeremonia tradizionaletan bakarrik jaten zituzten, hau da, ezkontzetan, zirkuntzizioan edo inimizazio-errituetan.



43. Irudia: Mlembe txoria

Eztia ere batzen dute Mlembe (*Prodotiscus Regulus*) txoriaren laguntzarekin. Txoriak aurkitzen ditu abaraskak eta eztaia batutakoan apur bat eman behar zaio txoriari edo, bestela, hurrengoan abaraskara barik lehoien ezkutalekura gidatuko ditu. Ikomek euren kontsumorako eta saltzeko erabiltzen dute eztaia.



44. Irudia: Ikoma tribuko kideak Robanda herrixkan

Natura zaintzearen garrantziari buruzko kontzientziazioaren eta turismotik lortutako irabaziak tribuen artean banatzeko Tanzaniako gobernuak duen politikaren ondorioz, ehiza aurki galduko da ikomen artean. Nazioaren aldaketa ekonomikoen eta teknologikoen erritmoari eusten saiatzen dira. Ama guztiak kliniketara joaten dira erditzera eta zorrotz jokatzeko seme-alabek derrigorrezko txertoak har ditzaten. Ume gehienak eskolatuta daude.



45. Irudia: Ikoma tribuko dantzariak

Ikoma hizkuntzak 36.000 hiztun ditu guztira, Nata eta Isenye dialektoak barne hartuta: ikoma (15.000), Nata (11.500) eta Isenye (9.500).

Hizkuntza mehatxatuen artean dago. Mintzaira erraza omen da Victoria aintziraren inguruan eta Afrika Ekialdean, oro har, bizi diren bantu guztientzat.

Nolanahi ere, gero eta gehiago dira beste tribu batzuetakoekin ezkondu eta seme-alabei txikitatik swahiliz egiten dietenak eta beren-beregiko ahaleginak egin ezean, aurki galduko dute jatorrizko hizkuntza.

Nata dialektoa duten gurasoek swahilia irakasten diete umeei lehen hizkuntza moduan. Oraingoan, adin guztietakoek dakite, baina zenbat eta gazteagoak izan azkarrago pasatzen dira swahilira.

% 95 kristauak dira eta gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzeko dute.

2.27. Iraqw

Tanzaniako Manyara eskualdeko Mbulu, Babati, Hanang barrutietan eta Arusha eskualdean bizi da talde etniko hau. Jatorrizko harremanak ditu Gorowa, Burungi eta Alagwa tribuekin. Tribu horien ahozko historiak dioenez, Irakeko Mesopotamia lurraldean antzina bizi zirenen ondorengoak dira iraqwak.

Sarritan izan ohi zituzten gerlek eraginda, euren jatorrizko lurraldetik alde gin behar izan zuten Kristo ondorengo laugarren eta seigarren mendeen artean. Itsaso Gorria zeharkatu eta Etiopian finkatu ziren aldi baterako, handik hego-mendebalderantz abiatzeko Victoria aintziratik Rift haranean zehar lekua segurua aurkitu arte.

Gerletatik ihesi hara-hona mugitu izan den herria da. Tanzaniako erdialderako bidea hartu zuten Iramba eskualdetik Dodoma hiriko mugetaraino. Han, borrokak izan zituzten Hehe, Ngoni eta Zimba tribuekin.

Egoera horrek behartuta iparralderantz jo zuten Guser Tuwalay deritzon lurraldera eta han bizi ziren abelazkuntzatik eta nekazaritzaatik. Baina han ere Barbaig herriaren aurkako gerra izan zuten.



46. Irudia: Iraqwen etxeak

Gerrari beldur zioten arren, bazituzten egurrez egindako lantzak eta geziak. Mutur zorrotzeko harriak ere erabiltzen zituzten.

Barbaigen aurkako borrokak galdu, Hanang mendira alde egin eta banatu egin ziren, batzuk Dabil mendira abiatuz. Familiaren eta klanaren mailako buruzagiak zituzten, baina tribu osoaren buruzagi nagusia Kahamusmo zen eta laguntzailea, berriz, Yaabusmo.

Ahozko tradizioaren arabera, iraqwek Haymu Tipe izeneko buruzagi ospetsua izan zuten, tribua lurralde baketsu eta lasaietara gidatu zuena.

Haymu aintzira bat zegoen parajera heldu zenean, Moya izena zuen bere zerbitzariari aintzira mugitzeko agindu zion, jendeak nahiko espazio eduki zezan bizitzeko. Buruzagiaren agindua betetzeko Moyak, bere aztikeriaz baliatuta, gezia jaurti zuen aintziraren erdi-

erdira. Esaten dutenez, Rift haraneraino mugitu zen aintzira, gaur egun Manyara aintzira dagoen lekuraino. Iraqwek “Tlawta Moy” deitzen diote lakuari, Moya zerbitzariaren ohorez. Aintzira mugitu zenetik, alde hartan bizi dira Mbulu barrutiko Murray, Kuta, Ainoa, Kainam, Suum, Datlaa eta Tsaayo konderrietan.

Gerora, Karatu, Babati eta Hanang aldeetan sakabanatu ziren apurka-apurka. Iraqwen ohiturak eta usantzak Yahudi herriaren antzekoak dira.

Irawen itxurak eta koloreak argi uzten dute herri hau Afrika iparraldekoa eta Ekialde Hurbilekoa dela, Afrika iparraldekoen antz handiagoa dutelako euren auzoko diren bantuena edo masaiena baino.

Alabaina, auzoko bantu tribuen eraginez eta beste tribu batzuetako kideekin ezkontzearen ondorioz, bantuengandik bereizten zituzten kolorea galduz joan dira. Gaur egun, irqwak hizkuntzak bakarrik bereizten ditu bantuengandik.

Lehen haragia zen euren janari nagusia. Abelazkuntzatik eta ehizatik lortzen zuten okela. Punta zorrotzeko harriekin harrapatzen zituzten animaliak.

Bui eta daha deritzen egur-motak marruskatuta egiten zuten sua.

Beste talde batzuek bezala, iraqwek gainontzeko tribuetatik bereizten dituzten ohituren eta usantzen jabe dira: umeen heziketa, ezkontzak, arropak eta abar.

Neskei senarrarekin bizitzeko, familia gobernatzeko eta bizimodu modernoari aurre egiteko modua irakasten diete amek. Mutilei, berriz, gizonezkoek irakasten diete jokabide onak, maitasunak, elkartasunak eta familiako buru bezala erronkei modu egokian erantzuteak duten garrantzia.



47. Irudia: Iraqw tribuko kideak

Irqwek hasiera uko egin zioten umeak eskolara bidaltzeari, mendebaldeko kulturaren eraginez euren ohiturak galduko ote zituzten beldur.

Gaur egun ere badira neskak eskolara bidaltzen ez dituzten gurasoak, etxeko abereak zaintzen geratu eta

gazterik ezkon daitezzen, horrela irabazi gehiago eskuratzeko dotearen bidez.

Iraqwen auzitegi tradizionalen, egindako delituaren arabera jartzen zituzten zigorrak, tribuko gizonezko eta emakumezko zaharren artean eztabaidatu ondoren. Sexuetako bati zegozkion gaiak epaitzeko, hasieran sexu horretako zaharrek eztabaidatzen zuten gaia, azkenean komunitate osoak jartzeko zigorra. Jartzen zituzten isunei “Dohho” deitzen zieten.

Zuhaitzen zuztarrekin eta hostoekin egin ohi zituzten hainbat gaixotasunen kontrako sendagaiak.

Zuztar horiek egosi, birrindu eta urarekin nahastu ondoren, gaixoei ematen zieten.

Iraqwek dantza tradizional bi dituzte. Bata, barrukoa, hau da, ezkontzetakoa, neska edo mutila ezkontzean dantzatzen dutena eta, bestea, kanpokoa, “gilo” deitua, uzta bildutakoan dantzatzen dutena, alaitasuna agertzeko eta Jainkoari eskerra emateko. Jainkoari eskariak egiteko, ostera, kantuez baliatzen dira. Hartara, gauza onak ekartzeko eta txarrak uxatzeko, Giryida abestia kantatzen dute. Firro eta Slufay dira iraqwen beste letania batzuk. Badute Jainkoari eskerrak emateko emakumek bakarrik kantatzen duten Sibeli deritzon kantua ere.


2001eko datuen arabera, 462.000 kidek osatzen zuten Iraqw herria.

Afroasiar familiako Cushit taldeko Iraqw (Erokh, Iraku, Iraqu, Kiiraqw, Mbulu, Mbulunge) hizkuntza hitz egiten dute. Egoera indartsuan dago, goraka doa. Bigarren mintzaira moduan erabiltzen dute datoogek eta gorowek.

% 41 kristauak dira. Gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzen dute.

2.28. Isanzu

Talde etniko hau Tanzaniako Singida eskualdeko Iramba barrutiko Kirumi dibisioan bizi da. 1987an 32.400 kide ziren. Nekazariak dira. Basartoa, artatxikia eta artoa lantzen dituzte. Gehienak Tanzaniako beste lurralde batzuetara joanak dira lanera, Arushara batik bat.



48. Irudia: Iramba barrutia beltzez

Isanzuen lurraldea alemaniarrek kolonizatu zuten XIX mendearen amaiera aldean. Ingelesen mende geratu

zen Lehen Mundu Gerran eta hala jarraitu zuen Tanganyikak independentzia lortu arte 1961ean.



49. Irudia: Kirumi aldeko etxeak

Isanzu (Kiihanzi) Niger-Kongo familiako bantu hizkuntza da, 32.400 bat hiztun dituena. ethnologuere arabera, berbeta mehatxatua da. Etxean soilik erabiltzen dute.

2.29. Jiji

Tanzaniako mendebaldeko Kigoma eskualdeko Ujiji hirian dago tribu hau. 1987an 12.000 bat omen ziren. Hala ere, Ethnologuek gerora zehaztu duenez, ez da jiji hizkuntza dagoen froga sinesgarririk aurkitu. Uste da, Ha hizkuntzarekin bat eginda dagoela.

Tribu honen bizileku den Ujiji hiria, berriz, Tanzaniako mendebaldeko zaharrena da. 1900ean 10.000 biztanle zituen; 1967an, aldiz, 4.100 besterik ez.

Lehenengo europarrak 1858ko otsailaren 13an iritsi ziren hara, Richard Burton eta John Hanning Speke britainiar esploratzaileak, hain zuzen, Tanganyika lakua aurkitu zutenean. Hiri horretan, 1871n Henry Morton Stanley esploratzaileak David Livingstone aurkitu eta orduan esan omen zuen esaldi ezagun hura: “Livingstone doktorea, ezta?”



50. Irudia: Livingstone memoriala Ujiji hirian

2.30. Jita

Tanzaniako tribu hau Mara eskualdean bizi da, 1.200 kilometro karratu inguruko eremuan, Victoria aintzirak inguratuta hiru aldetatik. 205.000 kide ziren 2005ean.

Euren jainkoei sakrifizioak eskaintzeko biltzen ziren Jita menditik datorkio bere izena herri honi. Mendi sakratua da eta, hortaz, jende arruntak debekatua du hara joatea.

Mara eskualdeko triburik handiena da. Iraganean borrokak izan zituzten eskualde horretako beste talde etniko batzuekin. Gehienetan menderatu egin ohi zituzten etsaiak. Musikak leba handia du jiten bizimoduan.

Jiten herrixka asko Victoria lakuaren inguruan daudenez, gehienak arrantzaleak dira eta lakuaren premia handia dute iraun ahal izateko. Nekazaritzak ere garrantzi handia du eurentzat. Artoa, basartoa eta artatxikia dira lantzen dituzten gaiak; kotoi-landarea ere bai, baina, batez ere, salmentarako.



51. Irudia: Jita tribuko arrantzaleak

Kristau asko daude jiten artean, azken hamarkadetan erlijio horrek alde hartan izan duen gorakadaren ondorioz. Askok euren burua kristautzat jotzen duten arren, erlijio tradizionalak ere praktikatzen dituzte eta aztiengana jotzen dute euren arazoak konpontzeko. Musulmanen talde txiki bat ere badago.

Jita (Echijita, Ecjiita, Ecijita, Kijita) hizkuntza bantu taldekoa da. 205.000 hiztun ditu. Egoera indartsuan dago adin-tarte guztietako jendearen artean. Etxean eta herriko

bileretan hitz egiten dute, ez dakien bat ez badago tartean.

Itun Berria itzuli zen Jita hizkuntzara 1900. urtearen erdialdean, baina askorentzat zaila zen irakurtzeko eta inprimatzeari utzi zioten.



52. Irudia: Itun Berria irakurtzen Jita hizkuntzan

2.31. Kabwa

Tanzaniako ipar-mendebaldeko Mara eskualdea da talde honen bizilekua. Kurya tribu handiko klan edo komunitatea da. Euren tradizioak eta usantzak Kurya tribuko beste klan batzuenak bezalakoak dira.



53. Irudia: Kabwa tribuko kideak

Nekazaritza da euren jarduera nagusia. Mandioka, artoa eta artatxikia dira gehien lantzen dituzten gaiak. Behiak, arkumeak eta ardiak ere hazten dituzte. Magian eta sorginkerian sinesten duen jendea denez, aurrerapen gutxi egin dute. Magana eta Kirumi herrixketan bizi dira kabwa gehienak. Zirkuntzisia egiten diete gizonezkoei eta ablazioa neskei, azken praktika honi ia guztiz utzi dioten arren. Kimange, Magana, Misisya eta Kwesa

mendiak daude euren lurraldean. Ibaiak ere bai, Nyamirama esaterako.

Kabwen artean ezaguna zen Matambalya wa Wandibha izeneko buruzagi edo “mwanangwa”. Zanaki tribuaren buruzagi ere bazela diote. Matambalyak Dar es Salaam, Bonn eta Liepzig-eko unibertsitateetan estudiatu zuen.

Bantu familiako Kabwa hizkuntza hitz egiten dute. 14.000 hitzun zituen 2011n. Ethnologuaren arabera, hizkuntza mehatxatua da. Etxean bakarrik erabiltzen dute.

% 10 kristauak dira; gainerakoek erlijio tradizionala praktikatzen dute.

3. Bibliografia

Abdallah bin Hemedi¹ Ajjem. *Habari za Wakilindi*. Kenya Literature Bureau, Nairobi, 1978

Angala R. G.. *Nchi na desturi za Wagirima*. East African Literature Bureau, Nairobi, 1949

Birthe Kirknaes *Hadithi na visa kutoka Tanzania*. ISBN 87-89007-34-34. Denmark, 1988

Masushan John M. *Masimulizi juu ya Masukuma*. East African Literature Bureau. Dar es-Salaam, 1963

Mnyapala Mathias E. *Historia, mila na desturi za Wagogo wa Tanganyika*. The Eagle Press. Dar es-Salaam, 1954

Ethnologue: languages of the world web orria: www.ethnologue.com/language

Wikipedia, entziklopedia askea web orria: <https://sw.wikipedia.org>

Emmanuel Francisca. Gorowa kabila linalojaribu kuzingatia usawa wa kijinsia. *Gazeti la Habari Leo* 31-07-2015

Emmanuel Francisca. Msitu wa Nyumbanitu unavyotumika kuenzi utamaduni wa Wabena. *Gazeti la Habari Leo* 30-10-2015

Kaale Kaenaeli. Wachaga, kabila linaloundwa na makabila balimbali. *Gazeti la Habari Leo* 19-10-2012

Kaale Kaenaeli. Wachaga, kabila lililoendelea linaloshikilia mila zake. *Gazeti la Habari Leo* 2012

Kaale Kaenaeli. Krismasi inavyotumika kudumisha ujamaa wa Wachaga. *Gazeti la Habari Leo* 27-12-2012

Kaale Kaenaeli. Wairaki: kabila lililotua Tanzania kjwa kukimbia vita. *Gazeti la Habari Leo* 05-10-2012

Kaale Kaenaeli. Wahadzabe walikula pundamilia 18 ili kushiriki sensa. *Gazeti la Habari Leo* 31-08-2012

Leonard Frank. Manafunzi atawazwa chifu wa Wahehe. *Gazeti la Habari Leo* 17-02-2015

Lubasi Sifa. Mila na desturi zaq Wakwere zinavyoimarisha familia. *Gazeti la Habari Leo* 06-11-2015

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi: Wagorowa wana asili inayoyawahusisha pia na makabila mengine. *Gazeti la Habari Leo* 2012

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi za Waha katika malezi ya watoto wachanga. *Gazeti la Habari Leo* 13-06-2014

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi: Waha, makundi yaliyogombea kutambuliwa uenyeji wao. *Gazeti la Habari Leo*

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi: Wairaqw kuendesha mashtaka yao kwa kuzingatia kanuni. *Gazeti la Habari Leo*

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi: Wairaqw watu waliohisi kubaguliwa walijiita Wambulu. *Gazeti la Habari Leo*

Nganyagwa Innocent. Mila na desturi: Wahehe, mapambano na kutangatanga kwao kulipwa jina. *Gazeti la Habari Leo*

Sanya Jhon J.Engaruka: kabila lililotoweka kimiujiza. *Gazeti la Habari Leo*

Simaye Peti. Wafipa, kabila lililotawaliwa na mwanamke kwa ufinasi. *Gazeti la Habari Leo* 14-11-2014

Simaye Peti. Wafipa walivyotumia radi kutuma salamu. *Gazeti la Habari Leo* 06-03-2015